
Gazteei zuzendutako euskarazko aldizkarien azterketa

Asmoak eta
pertzepzioak

HIZNET 2011-2012

Mikeldi Zeberio Loinaz
Tutorea: Jone Miren Hernandez



*Lan hau egitea ez denez bakar-lana izan, eskerrak bidean lagundu didazuen guztiei:
Naiara, kontaktua eta bultzadarengatik*

*Gorane, Estitxu, Laida, Jon, Iñaki, Urko, Karmele, Liher, Aritz, Iker eta Millán zuen berri
emateagatik, eta*

Igone, Xabier, Oier, Imanol eta Koldo zuen "etxeko" ateak irekitzeagatik

Aurkibidea

1. AZALPEN OROKORRA

Sarrera gisa

Gazteak

Gazteak eta euskara

Gazteei zuzendutako hedabideak: testuingurua

Lan honen helburuak

2. ELKARRIZKETAK: ALDIZKARIAK

Euskarazko produkzioan erreferenteak: ezaugarri orokorrak

Xede taldea: gazteak?

Irudiaren garrantzia

Harpidedunak: ezinbesteko protagonistak

Ikastolatik datorrena arbuiatu

Nongoak dira harpidedunak?

Generoa

Krisia(k)

Hiztun komunitatea: irakurle komunitatea?

Euskara: erregistroak eta kalitatea

Erreferentzia esparrua

Harremana irakurleekin

Aurrera begirakoak

3. ELKARRIZKETAK: GAZTEAK

Irakurzaletasuna: zer, zenbat eta zein hizkuntzatan?

Erreferentzialtasuna

Informazio bila

3.1. Gaztezulo

3.2. The Balde

3.3. Hitzen Uberan

3.4. Entzun!

4. ONDORIOAK

5. BIBLIOGRAFIA

AZALPEN OROKORRA:

Ikerlan honetan gazteei zuzendutako euskarazko argitalpenak aztertu nahi izan dira. Alde batetik, sortzaile eta egileen ikuspuntua aztertuko da, eta bestetik, gazte edo hartzaileena, horregatik jarri zaio *Asmoak eta pertzepzioak* azpititulua, *barraren* bi aldeak aztertuko direlako.

Gazteei zuzendutako argitalpenak asko direnez, lau produkzio aukeratu dira ikerlana zentratzearen: izaera orokorreko bi, ***Gaztezulo*** eta ***The Balde***; eta beste biak espezializatuagoak: musikaren alorrean ***Entzun!*** eta literaturaren esparruan ***Hitzen Uberan*** webgunea.

Guztiekin webgune propioa duten arren, lehen hirurak aldizkari gisa jaio ziren eta hori dute formatu nagusia. *Hitzen Uberan* da lauetatik berriena eta webgune huts gisa jaio den bakarra, paperean argitaratua izateko inolako bokaziorik gabe.

Azterketa kualitatiboa izan da, bereziki diskurtsoaren azterketa egin nahi izan delako, eta horretarako, banakako elkarrizketak egin dira: aurrez aurre, telefonoz eta e-posta bidez.

Sortzaileen atalean 5 elkarrizketa egin dira guztira: hedabide bakoitzetik bana, *Entzun!*-en kasuan izan ezik. Izan ere, mundua txikia bada, Euskal Herria zer esanik ez eta *Hitzen Uberan* webgunearen arduradunetako bat *Entzun!* aldizkariako sortzaileen taldeko kidea izan zenez, egoera baliatu da musika aldizkariaren hasierako garaien berri jasotzeko.

Gazteak aukeratzerakoan, kontuan hartuta unibertso oso zabalaz ari garela, malgu jokatu da hainbat aspektutan. 11 elkarrizketa egin dira eta multzokatzeak egiteko ondorengoa hartu da kontuan; adina, irakurzaletasuna, eta irakurtzen den hori zein hizkuntzatan egiten den. Adina zehazteko irizpidea edozein izanda ere zalantzarik izan daitekeenez, erabili diren argitalpenen ezaugarriak kontuan hartuta malgu jokatu da eta 16-35 urte bitarteko gazteak elkarrizketatu dira.

Elkarrizketatu bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio eta bakoitzaren testigantzak zenbaki horrekin aurkeztu dira. Irakurleen elkarrizketak taula batean sailkatu dira, irakurleari lana errazte aldera:

		Adina	
		16-25	26-35
IRAKURZALETASUNA	Handia		4-6-7-9
	Ertaina	1-3	10
	Txikia edo ezer ez	2-5	8-11
		Adina	
		16-25	26-35
ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKURRI	Euskaraz erdia baino gehiago	1-2-5	
	Erdi eta erdi		7-6
	Euskaraz erdia baino gutxiago	3	4-8-9-10-11

Sarrera gisa

Urteak pasa dira lehen ikastolak sortu eta ibilbide akademikoa osotasunean (goi mailako ikasketak barne) burutu zuten lehen belaunaldiak lan merkatura sartu zirenetik. Jakina denez, horietako gehienak gazteleraz funtzionatzen duen espazio sozio-ekonomikoan integratu dira eta ikasle garai urrun haietan barneratutako kontzeptualizazioaren parte garrantzitsua (berr)ikasi beharrean egon dira ohiko lan jarduera garatu ahal izateko.

Azken hamarkadetan egindako lanaren ondorio, gaur egun, orain hogeitaz bat urte ez bezala¹, euskararen ezagutza eta erabilera daturik altuenak gazte jendearen artean ematen dira, baina hauek ez dira nahiko gizarte osoaren inertzia iraultzeko, ezagutzak berez ez baitakar hizkuntzarekiko atxikimendua. Beharbada esperantza handiak jarrita daudelako giza-talde honengan, euskararen erabilerrari buruzko datuak interpretatzerakoan ezkortasuna izaten da nagusi. Baina azken datuek diotenez², beste adin tarteetan baino gehiago erabiltzen da (haurren ondoren, bigarren taldea da), hala ere, egia esan, tendentziak ez dira helduen artean ematen direnekin alderatuta oso desberdinak. Funtsean zegoen ustea zen *“egin dezagun ahalegina etorkizuneko hiztun egokiak sortzeko, eta berez aldatuko da joera euskararen alde”*. Denborak dio hori oso garrantzitsua izanagatik ere, horrekin ez dela aski. Esperientziak erakutsi digu erakunde batera sartzen den kide berriak ez dituela bertan sustraituta dauden praktika eta ohiturak (erakundearen kultura) aldatzen, horietara egokitzen dela baizik. Hori horrela, erakunde batean aldaketa jakinak emateko ez da aski kide berri edo belaunaldi gazteen bultzada, erakundearen goi organoek aldaketa hori sustatu eta praktikara eramateko baldintzak jartzea ere ezinbestekoa da.

Egoera honek ondorio ugari eta inplikazio asko dauzka eta hainbat dira gai honek dauzkan heldulekuak. Lan honen abiapuntua kezka zehatz batetik dator eta hau egoera horren ondorioz datorren hizkuntza gaitasunaren galera da.

Gehiago zehaztuz: azkenaldian kasu ugari topatu ditut ibilbide akademiko guztia euskaraz eginagatik ere, ikasketak amaitu eta urte batzuk pasa ondoren euskara formalarekin erabat eten dutenak. Hau da, euskaraz irakurri zein idazteko gaitasunaren galera partzial inportantea, zenbaitetan galera osoa, jasan duten pertsona gazteekin egin dut topo.

Hori dela eta, ikergaia irakurzaletasunean zentratu dut. Zehazkiago esateko, irakurzaletasunari buruzko diskurtso eta praktiketan. Hori horrela, eremua zehaztearren, hartzaile jakin batzuegan zentratzea erabaki dut: gazteak. Zergatik? lehenik eta behin hainbat sektoreetan kezka sortzen duen kolektiboa delako eta bestetik, praktika eta ohitura propioak sortzen eta garatzen dituen giza taldea izanik, interes handiko ondorioak azalera ditzakeelako orainaren zein etorkizunaren ulermena


¹ V. Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitzen arabera, 20 urtetan buelta eman zaio tendentziari, 1991 urtean elebidunen adin talde nagusia 65etik gorakoa zen, eta 2011ean 16-24 bitartean. Iturria: <http://sustatu.com/1342452281> 2012/07/16

² VI. Kale neurketaren emaitzen txostenean, adin taldeen arabera emaitzak ematen dira 7 eta 10 orrien artean.

laguntzeko. Horregatik eta xede taldearen ezagugarriak kontuan harturik, irakurzaletasuna aztertzeko produkzio informalak erabili dira; aldizkariak.

Lehen aipatu dut hizkuntza gaitasunaren urratzea lan munduaren egoerak esplikatzeko duela hein handi batean, baina jakin badakit hau ez dela arrazoi bakarra. Fenomeno sozial guztietan bezala, hemen ere faktore askok eragiten dute, eta kasu honetan bereziki, gizartean orokorrean euskarak duen presentzia edota, irakurmenean gehiago zentratuta, erabakigarria da euskarazko produkzioen desoreka handia gaztelerako inputekin alderatzen badugu.

Idazmena eta irakurmenarekin bakarrik ez, ahozketasunarekin ere gertatzen da gaitasun galera, eta ez nolanahikoa, baina ikergaia zentratzearen, euskaldun alfabetatuengan zentratu nahiz. Zergatik? Txepetxeri teoriaren arabera, hizkuntza komunitatearen ikuspuntutik, euskaldun alfabetatuek, AB-BA tipologiakoak³, izango direlako hizkuntza komunitate trinkotu baten erdigunea okupatuko dutenak.



1 koadroa: Txepetx "hizkuntza komunitate baten egitura normalizatua".

Iturria: Elgoibarko izarra

Hezkuntza sistemak euskal hiztun osoak sortu ditu azken hamarkadetan, baina errealitatea egoskorra da, eta azken urteetan ondorioztatu da belaunaldi gazteenek ez diotela hizkuntzari eusten alde

³ Txepetxek hiztunen tipologiak sortu zituen gaitasunaren arabera. Horrela, A tipologiako hiztuna euskara kalean edo etxean ikasi duena da. Ahozketasun bizikoa baina alfabetatugabea. B tipologiako alfabetatua baina ahozketasuna garatu ez duena, AB biak lortu dituen (lehenengo etxean jaso eta ondoren alfabetatu) eta BA tipologiakoak Txepetxek ibilbide kulturala deitzen duena burutu duen hiztuna da. Heldu aroan alfabetatu da eta ondoren ahozketasuna garatzea lortu duena. *"Un futuro para nuestro pasado"*, 203 orria.

aurretik pentsa zitekeen hainbestearainoko indarrarekin. Estatistika horien atzean dagoena da euskaldun alfabetatu horiek guztiak elebidunak direla, eta elebidun diren aldetik, edozer gauza komunikatzeko hizkuntza bata ala bestearen artean aukeratu behar duela, eta horrek beste galdera baten aurrean jartzen gaitu: **“zein hizkuntzatan moldatzen dira hobeto elebidun osoak?”**. Izan ere, hizkuntza gaitasuna ezinbestekoa da, baina ez da aski. Horrekin batera beharrezkoak dira beste hainbat ezaugarri. Julen Arexolaleibaren ustez ondoko ezaugarriak behar ditu hiztun autozentratuak **“Baina euskara ondo jakitea bakarrik ez da nahikoa izango, euskaldunon komunitatearen erdigunean egongo direnak **euskaldun osoak, kompetenteak, kontzientziadunak eta koherenteak izan beharko dute**”⁴.**

Honetan bat dator Sarasua:

“Hiztun komunitatearen erdigunean kokatzen dira ‘hiztun osoak’, funtzio informal eta formal desberdinak euskaraz egoki egiteko gai direnak. Horiek baino erdigunerago, euskaraz bizi eta euskaraz kontsumitzeko hautua egin dutenak. Eta horien artean biziberritzearen gidaritzan aritzen diren erdirago, euskararen garapen prozesuan aktiboki engaiatuta dauden milakak. Egitura honetan ertz eragokozko zirkuluetan daude hizkuntzaren ezagutza eta erabilera-maila desberdineko pertsonak, hizkuntza hezkuntza prozesuaren bidez soilik ukitzen dutenak, hartzaile pasiboak, eta beste hainbat multzo.”⁵

Zer pasatzen da orduan produzitzen ditugun milaka hiztun alfabetatu horiek hiztun komunitatean bete beharko luketen rol teorikoa betetzen ez duenean? zergatik ez dute espazio hori masiboki betetzen?

Sarasuak dio lidergoa falta dela, lidergo hori bere gain hartuko duten koadroak hezteko falta dela: *“Koadroak falta zaizkigu, etorkizuneko erakunde sare guzti horren gidari izango direnak, etorkizuneko politikoen aurrean hizkuntza komunitatearen diskurtso beregain bat egiteko gai izango direnak. Agian egingo ditugu hiru herri aldizkari gutxiago, baina goazen ziurtatzera hemendik hamar urtera egongo direla 200 gazte formazio sakona izango dutenak”⁶*. Paradoxikoa bada ere, aldizkariak aztertuko ditugu hemen, eta espazio hori betetzeko rol garrantzitsua betetzen dutela ikusi ahal izango dugu.

⁴ Lantalan: Eralan topaketaren kronika, Huhezi, Eskoriatza, 2011-12-01, III parteak:

<http://www.lantalan.com/lantalan/euskalgintza-adostasunen-sakontasunaz-gogoeta-egiteko-gonbita>

⁵ Jon Sarasua, 2012: *“Euskal Telebista eta euskal telebista. Euskarazko telebista esparruaz eztabaidarako gogoeta bat.”*

⁶ Jon Sarasua, Zumaian 2012/02/15ean egindako hitzaldiaren kronikatik. <http://baleike.com/2012/02/16/Jon-Sarasua-Gizarte-erakundeetatik-sortutako-estrategia-berriak-behar-ditu-euskarak-aurrean-ditugun-desafioei-aurre-egiteko/>

Lidergoa bai, baina espazioak ere gehituko nituzke nik. Euskara sortu eta garatzeko espazio edo gune autoantolatutak, kanpoko agenteen tutoretzatik askeak izango direnak. Ikerlan honetan aztertu diren aldizkariak izan daitezke espazio horietako batzuk, baina beste asko badaude ere; gazte asanbladak, gaztetxeak, kultur eta aisialdi elkarteak, zenbait gazteen lokal edo taberna...

Gazteak

«(...) la juventud ha dejado de ser un rito de paso para convertirse en una ritualización del impasse».

(Feixa, 2009)

Aurrera egin aurretik, beste galdera bati heldu behari diogu. *Bai, baina, zer da gaztea izatea?* zaila da erabat aseko gaituen definizio bat ematea. Eraikuntza soziala den aldetik, adin talde sozialak elkarrenganako oposizioan definitu izan baitira tradizionalki. Nor da heldua? zaharra eta gaztea ez dena. Nor da haurra? gaztea, heldua edo zaharra ez dena, eta horrela hurrenez hurren. Taldeko barneko ezaugarriei baino, talde hori osatzen ez dutenei erreferentzia eginez eraiki izan dira definizioak. Hemen ere, antzeko zerbaite egingo dugu, izan ere, Soziologiak helduarora iritsi aurreko bizitzaren aro gisa definitzen baitu gaztaroa. Eta zerk bihurtzen du gizabanako bat heldu? *"lan merkatura iristea izan ohi da lehenengo urratsa, gizarte industrialetako herritar gizasemea gaztetasuna eta heldutasuna bereizten dituen eremu ilun horretan sar zedin. la beti halabeharrez egin beharreko urratsa zen, beste urrats batzuei kateaturik -bikotekidearekin elkartzeari, familia independentea sortzeari, seme-alabak edukitzeari- bidea osatuz joaten zena, azkenean, heldutasunera iristeko* (Zubero, 2002).

Gizarte industrialetan beraz, helduaroa lau ezaugarri hauek lortutakoan erdiesten zen:

- a.- independentzia ekonomikoa: lanaren bitartez
- b.- egonkortasun emozionala: bikote bizitzaren bidez.
- c.- egoitza independentea sortzea: bizitza nukleo propioa sortzearen bitartez.
- d.- deszendentzia: seme-alaben bidez.

Carles Feixa antropologoaren beste definizio honek ez ditu lau baldintza hauek zehazten, baina era berean erreferentzia egiten dio bi garairen arteko (umezaroa eta helduaroaren arteko) trantsizio uneari: *"(la juventud es una) imagen cultural, que corresponde a una condición social de dependencia que en determinadas sociedades se atribuye a los individuos que se encuentran en una fase biográfica de transición entre la infancia y la vida adulta."* (Feixa, 1998, 270. orria). Pierre Bourdieu soziologoak antzeko zerbaite esaten digu: *"estos 'jóvenes' están en una especie de no man's land social, son*

*adultos para determinadas cosas, son niños para otras, juegan en dos tableros*⁷” eta egoera horretan saiatzen da bilatzen bere oreka. Gaztea, beraz, bi garai hauen artean kokatzen den gizakia da, ez da haurra, ezta heldua ere.

Ikusi daitekeenez, adina baino, praktika sozialak hartzen dira kontuan, eta horrek ulertzea eman dezake zergatik azken hamarkadetan eman den gaztaroaren luzatzea mendebaldeko gizarteetan. Izan ere, independentzia ekonomikoaren alorrean, lan baldintzen prekarietatea geroz eta nabariagoa da eta horrek formazio garaia luzatzea ekarri du eta, ondorioz, lan mundura beranduago sartzea. Lanaren prekarietateak norberaren bizitzaren aurrera begirako proiektzioa zaildu egin du eta horrek eragina dauka beste hainbat esparrutan, hala nola, egonkortasun emozionala edo seme-alabak izatearen alorrean; aldaketa demografiko eta sozial bortitzak eman dira azken hamarkadetan, *“ziurgabetasunaren bizipena; bizi baldintzak desegonkortzea; bizi-prekarietatea; etorkizuna epe luzera antolatzeke zailtasuna; aisialdi eta kontsumo joera berriak; indibidualismoa”* (Zubero, 2002). Eta guzti honek, ondorioz, eragina du bai egoitza propioa sortzerako orduan, etxebizitza erosi edo alokatzeke baliabide nahikoak lortzea geroz eta zailagoa delako, zein helduaroarekin lotuta dauden beste zenbait aspektuekin ere.

Gaztetasunari buruzko definizio hauek baliagarriak dira. Baina gaztaroa luzatzearekin batera, gaztaroa bera praktikatzeko moduak aldatu egin dira eta hemen beste kontzeptu batekin egin dugu topo: gazte kulturarekin, alegia. Gazteak nor diren baino, gazteek zer egiten duten ulertzeke baliagarriagoa izango zaiguna:

“En un sentido amplio, las culturas juveniles se refieren a la manera en que las experiencias sociales de los jóvenes son expresadas colectivamente mediante la construcción de estilos de vida distintivos, localizados fundamentalmente en el tiempo libre, o espacios intersticiales de la vida institucional.” (Feixa, 1998, 84. orria)

Praktika horretan baitaude hainbat atributu gaztetasunaren bizitza estiloa edo gazteen identitatea eraikitzeke baliagarriak izan daitezkeenak, gehienetan helduaroetik bereizteke kontzienteki, edo inkontzienteki, garatuak. Horretarako, kontsumo ohiturak, estetika eta beste hainbat dinamika kontuan hartu behar dira. Gazteen egoera paradoxikoa da, helduen erakundeekiko identifikazio eza

⁷ Bourdieu, Pierre. *La juventud sólo es una palabra*, *Cuestiones de Sociología* liburutik, 143 orria. Istmo, Madrid, 2003.

eta mespretxua praktikatzen dituen bitartean, helduen munduko hainbat faktorekiko erakarpen handia sentitzen du, eta horrek baztertu/onarpen penduluaren baitan jokatzera eramaten du:

*Hori dela eta, behin baino gehiagotan topatu ditugu mahai gainean – printzipioz– ulergaitzak diren diskurtsoak eta argudioak: gurasoengandik urrundu nahia baina familiaren babesa eta sostenguaren beharra eta dependentzia; formazioak egungo gizartean duen prestigioa eta balioaren aitorpena, eta eskolaren aurkako kritikak; kontsumismoaren inguruko salaketak eta gaztetxoek egun kontsumorako zenbait produktuekiko duten lotura estua (telefono mugikorra, arropa eta markak...).*⁸

Kontraesan horretan ibiltzera derrigortuta, *gazte* izate horren inguruan eraiki dira bereizketa prozesu horren identifikazio indartsuenak, musika, estetika, kontsumo joerak eta indar gutxiagorekin, baita hizkuntzarekin ere.

Gazteak eta euskara

Lehen esan dugun bezala, euskal gizartearen parte zabal batek sinesten zuen eskolak sortuko zituela euskal hitzun aktiboak eta orain emaitzek ondorio hori ukatzen dutenean, alarma guztiak piztu dira. Jone Miren Hernandez antropologoak arreta sormenean jartzeko eskatzen digu:

*Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei? Zer eskaintzen die gazte eta euskaldunak (edo gazte euskaldunak) izateko (edo sentitu ahal izateko)? (...) Pertsonalki erabilerak kezkatzen nau, nola ez, baina baita sormenak ere. Gazteei begira sormen esparru guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak, euren interesekin bat egiten dutenak. Nabarmenenak: musika bereziki, baina beste batzuk ere, adibidez, antzerkia, literatura, bertsolaritza.*⁹ (Hernandez, 2011, 25).

Era berean, bere ustez, ikertzeko molde berriak asmatu beharrean gaude, orain arteko eskemek ez dute errealitatea bere osotasunean azaltzen.

Gure ikuspegia, beste gauza batzuen artean, ezagutza-erabilera-motibazioa eskemarengatik oso baldintzatuta dagoela uste dut, eta sekuentzia horrek irudi oso estatikoa ematen digula pentsatzen dut. Errealitateak dikotomiak

⁸ Zesar Martinez, Kontxesi Berrio Otxoa, Jone Miren Hernandez: *Gaztetxoak eta aisialdia: etorkizuna aurreikusten 2001-2002. Soziologiako euskal koadernoak 2003*

⁹ Jone Miren Hernández. “Baina gu ere gazteak izan ginen! gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur” 2011

zalantzan jartzen ditu: ezagutu edo ez ezagutu, erabili edo ez erabili; motibazioa izan edo ez izan. Errealitatean dibertsitatea nagusi dela iruditzen zait, eta belaunaldi euskaradun berriek bere baitan biltzen duten aniztasunaz jabetzeko beste eredu bat aplikatu behar dugulakoan nago. (Hernandez, 2011, 26)

Beste eredu baten beharra, ados. Baina zein? gazte elebidunen errealitatea asko aldatu azken urteetan. Gehiago dira jadanik etxetik erdara jaso eta eskolan euskaldundu direnak. Erreferentzia esparruak aldatu dira eta elebitasunaren paradigmatic hizkuntza aniztasunaren paradigmara pasa gara, besteak beste. Gazteek, bere praxiarekin, paradigma hori aldatzen ari direla dio Hernandezek eta horrek kudeaketa berri batera garamatza halabeharrez.


zein lotura du paradigma horrek euren egunerokotasunarekin, euren gertuko errealitatearekin? Euskararekin batera euskal kulturari loturiko hainbat erreferente ezagutzen dituzte, baina nola txertatu horiek euren familiak (horietako asko erdaldunak) eskaintzen dizkien erreferenteekin? Eta gazte kulturaren erreferenteekin? (Hernandez, 2011)

Testuinguru lehiakorrean kokatuta daude hizkuntzak eta zentzu horretan, nabarmentzeko edo balio erantsia eskaintzeko beharraz mintzo da Sarasua: "*Euskarak eskaintzen du harreman mundu bat, sorkuntza mundu bat, mundu estetiko bat, eraikitzen ari den mundu bat, zirkuitu batzuk erdarak ematen ez dizkidatenak. Eta hor sortzaile izateko aukera du gazteak, eraikitzeke dagoen mundua delako. (...) Zirkuitu hauetan dago gure gakoetako bat. Zirkuitu hauetan ari da erreproduzitzen benetan etorkizunean euskaraz bizitzeko nahimena. Herrietan euskarari itsatsitako kapital sozial hori da. Hor ari da egosten euskaraz bizitzeko motibazioaren erreprodukzioa*¹⁰". Lehia horretan beste inork eskaintzen ez duen eskaini behar du, hegemoniko izan nonbaiten, eta hein batean, lortzen duela dio Sarasuak.

Gazteei zuzendutako hedabideak: testuingurua

Harreman mota hori eskaintzeko bitarteko proposak dira hedabideak. "*Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*" izeneko ikerlanean, Soziolinguistika Klusterrak, Topaguneak eta Urtxintxak hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktoreak marko batean bildu zituzten. Bertan, maila indibidualetik maila makrora kokatu ziren erabileran eragiten duten faktoreak eta "motibazio", "ezagutza", "erabilera" ataletan banatu zituzten. Gure ikergaiarekin bat datozen faktoreak (*kontsumo eskaintza / input mediatikoak*) "maila makroa" (*gizartea / ingurunea*) eta "erabileraren koordenadetan" kokatu ziren.

¹⁰ Jon Sarasua, Zumaian 2012/02/15ean egindako hitzaldiaren kronikatik. <http://baleike.com/2012/02/16/Jon-Sarasua-Gizarte-erakundeetatik-sortutako-estrategia-berriak-behar-ditu-euskarak-aurrean-ditugun-desafioei-aurre-egiteko/>



Iturria: soziolinguistika klusterra – gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua

Maila makroan erabileran eragin dezaketen faktoreak hartu dira aztergai gisa, beraz, baina maila indibidualera jaisteko saiakera egin da. Hori horrela, lan honen bidez hainbat galdera erantzun nahi dira. Hala nola:

Lan honen helburuak

- *Euskal gazteek kontuan hartzen al dituzte eurentzat sortutako euskal produkzioak? ezagutzen al dituzte? nola erabiltzen dituzte?*
- *Zein da hauen gainean daukaten iritzia?*
- *Zein da produktu hauek egiten dituzten pertsonen asmoa edo filosofia?*

Bidearen amaieran jakingo dugu ea galdera hauei erantzun egokia topatu diegun, ala galdera hauek erantzun barik utzi eta berriak sortu zaizkigun.

Ikus dezagun, beraz.

1. ELKARRIZKETAK: ALDIZKARIAK

Aldizkarietako arduradunen elkarrizketen emaitzak eman aurretik, azal ditzagun hautatutako produkzioak laburrean, banan-banan.



Gaztetxulo izenarekin *Bagera* Donostiako euskaltzaleen elkarteak 2.000 urtean sortua, Donostia eta inguruko gazteei zuzendutako euskarazko aldizkari gisa jaio zen. Euskal Herri mailan zegoen hutsuneaz oharturik, urtebetera salto egin zuen zazpi lurraldeetara eta 2.007an salto kualitatibo garrantzitsua eman zuen. Web orria sortzearekin batera, proiektu komunikatibo osoagoa izatera pasa zen, eta izena bera ere aldatu zen; Gaztezulo. Zergatik? bi arrazoiengatik **“Orduko lantaldeari iruditu zitzaion <txulo> horrek kutsu giputxiegia zuela”** eta orain Euskal Herri osoari zuzentzen zitzaionez, saihestu nahi izan zuten, eta bestetik, **“<txulo>k konnotazio gaztetxoegia (helburua zen gazteriaren adin tartean pixka bat gora egitea, 30 urte arte edo horrela”**. Ordutik, helburu berbera mantentzen dute; gazteei zuzendutako izaera orokorreko euskarazko aldizkaria egitea.



Aztertutakoen artean beterranoena. 1996. urtean ikusi zuen argia musikari eta musikazaleen artean sortua, hemen ere, hutsuneak betetzeko xedearekin **“ordura arte, ez zen euskarazko musika aldizkaririk. Hutsune hori betetzera etorri zen”**. Musika popularra jorratzen duen aldizkari espezializatua da. **“Pop musika (musika popularra, zentzu zabalean: rocka, punka, hardcorea, elektronikoa, bluesa ...)”**. Urteetan zehar bi hilabetekaria izan zena, **“aldizkari osoa kolorez argitaratu zen lehen (euskarazko) aldizkaria izan ginen”**, 2007an urtekari bihurtu zen. Luxuzko edizioan, gainera **“CDarekin, 144 orri, tapaki erdigogorak ... diseinu garbia, dena kolorez... CD horretan urteko EHko zenbait taldek argitaratutako hainbat abesti agertzen dira, 18 abesti. Urteko lagin bat, liburua laguntzeko”**. Dagoeneko lau argitaratu dira formatu berriarekin eta bosgarrena ari dira prestatzen, azaroa - abendurako.



HITZEN UBERAN: zenbait literaturzaleren bultzadaz, Euskal Idazleen Elkartearen babespean 2010ean sortutako webgunea da **“literaturzaletasunaren inguruan mugitzen den guztiari arreta ematen**

dion proiektua da. Ez bakarrik argitalpenak; idazleei edo horren inguruan sortzen den antzerkiari, erakusketei, irakurle klubei... egiten die kasu.” Aztertu ditugun besteak ez bezala, hitzen uberan Interneteko proiektu gisa jaio zen hasieratik. Ez da paperetik etorri den egitasmoa. Interneten aukera eta potentzialtasunak baliatuz, **“bilgune, puntu komun bat nahi du izan, orain arte oso sakabanatua egon diren atalak edo literaturaren adarrak gune bakar baten pean bilduz (...) eskaini nahi du argazkia, literaturaren baitakoa”**. Euskal literaturgintzan mugitzen den orori periskopia pausatzen dion ontziaren web orrian denetarik aurki dezakegu, albisteak, elkarriketa sakonak, poema musikatuak, erreportajeak, irratsaioen podcast-ak...



Izenak izana dakarrelako, aldizkari honen izenean bertan topatuko ditugu proiektu honen bi berezitasun nagusienak; elebitasuna, (aztertu ditugun guztiak euskara hutsezkoak dira. Dena dela, thebalde aztertzea interesgarria iruditu zaigu elebitasunaren kontzeptu horretan gazteleraren morrontzatik askatzeko ausardia izan dutelako elebitasuna ingelesarekin praktikatzuz). Bigarren ezaugarria doakotasuna du, irakurleak aldizkaria debalde jasotzen duela, alegia, **“nahiz eta guk beti esan dugun ez dela aldizkaria musutruk ateratzen, baizik eta jendeari musutruk iristen zaiola”**. Gaztezulo bezala, izaera orokorrekoa **“arte, kultura eta gizarte gaiak jorratzen ditu (...) Ikuspuntuaren originaltasuna eta gaia jorratzeko askatasuna dira gure helburuak. Normalean elite batentzat jorratzen diren gaiak modu popularrean jorratzea eta erakustea**. Bizarrismoan erortzeko batere beldurrik gabe, gai bereziak aukeratu eta are modu bereziagoan erakusten dituzte. **“Arkitekturak, diseinuak edo eta teknologiak ez dute zergatik “enteradilloen” kontuak izan behar”**.

Elkarriketak egin ditugu lau hedabide hauetako kide banarekin, Entzun! aldizkariaren kasuan elkarriketak bi izan dira, horren bila joan gabe, lehen esan bezala, *hitzen uberan* webgunearen arduradunetako bat Entzun! aldizkariaren sortzaile izan zelako eta bere bidez hasierako garaien berri jaso genuen. Hori dela eta, testigantzetan, <entzun!> izenak erreferentzia egiten dio gaur egun aldizkariaren kudeaketan dabilen pertsonari, eta <entzun!2> izenak aldizkariaren lehen urteen berri emango digu.

Ondoren, elkarriketa horietako pasarte esanguratsuenak hautatu ditugu interesgune edo gaika sailkatuta.

Euskarazko produkzioan erreferenteak: ezaugarri orokorrak

Aztertutako ereduak, bakoitza bere arloan eta bere ezaugarriekin, euskararen unibertsoan bakarrik direla esan digute:

“Momentu honetan proiektu bakarra gara izaera honekin. Izaera orokorreko proiektua. Komunikatiboa, era guztietako gaiak euskara hutsez lantzen ditugu” <gaztezulo>

“Literaturzaletasunaren inguruan mugitzen den guztiari arreta ematen dion proiektu bat.(...) Ez bakarrik argitalpenak, idazleei edo horren inguruan sortzen den antzerkiari, erakusketei, irakurle klubei ... ikuspuntu horrekin (...) Zentzu horretan betetzen du hutsune bat”. <hitzen uberan>

“Euskaraz paperean argitaratzen den (musika aldizkari) espezializatu bakarra gara (...) Badaude blogak, webguneak... baina paperari dagokionez bakarrik gara”. <entzun!>

Hori horrela, bere garaian hutsunea ikusi eta espazio hori betetzeko saiakera egin zen. Gaztezuloren aurkezpenean azaldu bezala, Donostiako euskaltzaleen elkarteak bultzaturik jaio zen aldizkaria. Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik funtzio estrategikoa betetzen dutela adierazi digu elkarrizketatuetako batek eta, administrazioak berak ere hori horrela dela onartzen du. Alde horretatik, administrazio publikoaren laguntza ezinbestekoa dela esan digu:

“Inportantea eta eutsi beharrekoa (...) administrazio aldetik babestu beharrekoa” <gaztezulo>

Bakarrik izan arren, osagarritasuna bilatzen da generoko beste hainbat gune edo erreferentziarekin:

“Bata bestearen (hitzen uberan eta armiarma.com, Susa argitaletxeak euskarazko literaturaren gordailu gisa sortu duen webgunea) lanak estekatu eta elkar osatu egiten da. Espresuki orain arte literaturaz oso gauza gutxi daudelako, eta sakabanatuta.” <hitzen uberan>

Gazte kulturaren ezaugarria da kolektiboak konpartitzen dituen kodeak sortzea eta erreproduzitzea. Gazteei zuzendutako kontsumo produkzioak baino, gazteek gazteentzat sortutako produkzio gisa funtzionatzen dute, eta zalearen filosofiatik sortuak dira, batik bat.

“fanzinearen kulturatik dauzkagu eraginak” <entzun!>

“Fanzine bat gara. Zaleek eginiko aldizkariaren filosofiari jarraitzen diogu.” <the balde>

Kulturaren adierazpide hauek sistema bat osatzen dute eta osagai zentralarekin batera -musika, adibidez- honen orbitan mugitzen diren beste diziplinek beren lekua dute:

“Asko gustatzen zaigu rockarekin zerikusia duen artea. Kartelgintzari garrantzia handia eman diogu, edo komikiari.” <entzun!>

Xede taldea: gazteak?

Gaztetasuna kontzeptu lausoa da eta lehen esan dugun bezala gizarte egituretan ematen diren aldaketen menpekoa. Kontzeptu aldakorra den aldetik, adin biologikoari baino, bizitza estiloa edo bizitzarekiko jarrera adierazten du elkarrizketatuentzat:

“Helburuak jarraitzen du izaten xede taldea 16-30 urte bitarteko jendea izatea. Bihotzez edo buruz gazte direnak” <gaztezulo>

Alde horretatik, sorpresak ere hartu dituzte:

“hasiera batean uste genuen irakurlego gazteagora iristen ginela nagusiki... baina gazteez gain heldu askok eta gizarteko toki ezberdinetakoak irakurtzen gaituzte..” <the balde>

Mutazio kontzeptual horren ispilu, azken urteetan bogan jartzen ari den kontzeptu berri bat aipatu digute: *gazte-heldu*.

“16tik gora edozein adineko pertsoneri. 16-50, ez dakit e... potentzialki, ikasleak, nerabeak igual gutxiago eta gazte-helduak. Orain asko erabiltzen den gazte-heldu hori.” <entzun!>

Irudiaren garrantzia

Izaera orokorreko aldizkari bati adin tarte zabalarari zuzentzeak hainbat zailtasun dakartzkio. Kontuan hartu behar da pertsona baten bizitzan aldaketa handiak ematen direla hamar urteko tartean, eta aldaketa horiek sakonagoak izaten direla gaztaroan, 15 eta 25 urteen artean, adibidez, edo 20 eta 30 urteen artean. Egoera hau kudeatzeko estrategiak garatzea beharrezkoa da, xede taldeko azpi-segmentu guztien nahiak ase nahi badira.

“Alde grafikoa zaindu zen bereziki. 17-18ko gazteak gantxo grafikoa behar du erakartzeko. Ez dute izango gogo edo ohiturarik testu luzeak irakurtzeko... Irudiak gantxo ona dira, eduki bisuala, erakarriko zaituena... beste aldizkariekin alderatuta, Argiarekin adibidez, diseinuak, irudiak garrantzia berezia (dauka)... (...) <gaztezulo>

Badakite eduki batzuk irakurle helduagoak gogo hobeagoz hartuko dituela:

“irakurle helduagoak erreportaje sakonagoak nahiago ditu. Justu orain idatzi dudan Nafarroaren konkistaren 500. urteurrenari buruzko erreportajea, adibidez, kontziente nintzen gazteenek ez zutela irakurriko”. <gaztezulo>

Beharbada ez xede berberarekin, baina beste kasuetan ere ondo zaindu da irudia. Testuak baino garrantzia handiagoa hartu ohi du irudi bidezko aurkezpenak:

“Irudi batek 1000 hitz baino gehiago balio duela ez dugu sinisten, baina irudi batek 1000 esanahi eta irakurketa izan ditzakeela erakustea da gure helburua” <the balde>

Era berean, irudiak eta formatua produktuaren identitatea eraikitzeke funtsezko osagaiak dira.

“formatuari dagokionez guk erabaki genuen formatu handi hori ematea, hasieratik nahi genuelako aldizkari nahiko grafikoa egin. (...) Gainera oso propioa da. Papera guretzat moztan dute horrela.” <the balde>

Honek hainbat erabaki hartzera derrigortzen zaitu eta, zergatik ez, baita apustu egitera ere, euskal aldizkarigintzan aitzindariak izatera iristeraino:

“Aldizkari osoa kolorez argitaratu zen lehen aldizkaria izan zen Entzun!. Handik urte batzuetara Argiak ere pauso hori eman zuen. Baina Euskal Herrian lehena Entzun! izan zen. Ausartak izan ginen, bai.” <entzun!2>

Aldizkari berberak berregituraketa sakona izan zuen 2.007an eta hor ere, irudi eta formatu aldetik, erabaki ausartak hartu zituzten.

“paperezko edizio berezia, urtekaria. Luxuzkoa, CDarekin, 144 orri, tapaki erdi-gogorak... diseinu garbia, dena kolorez...” <entzun!>

Harpidedunak: ezinbesteko protagonistak

Paperezko euskarrian argitaratzen diren proiektu komunikatiboak diren aldetik, ezinbestekoa da irakurle masa fidela lortzea eta ohiko distribuzio bideez gain, oso garrantzitsua da hartzaile kopuru finkoa alde aurretik ziurtatzea, proiektua ekonomikoki bideragarria izan dadin.

“Merkatuaren legeak agintzen du eta konpetentziarekin lehiatzea zaila egiten zitzaigun. Horregatik, harpidetza sustatzeari berebiziko garrantzia eman genion hasiera-hasieratik.” <entzun!2>

***“gure jomuga zen harpidedunak, harpidedunak, harpidedunak...”
<gaztezulo>***

Arazo bat dago, ordea. Xede taldea ez baita preseski ahalmen ekonomiko handia duen sektorea.

“(badakigu) egunean bizi dela gazte jendea eta akaso ez du harpidetza bat ordaintzeko modurik.” <entzun!2>

Horren jakitun dira sortzaileak, eta horregatik saiatzen dira ahalik eta preziorik orekatuenak jartzen. Dena dela, prezioa baino gehiago, bere kabuz harpidetza egiteko erabakia hartzeko faktoreetako bat adina dela esan digu Gaztezuloren zuzendariak:

“Harpidetza bere kabuz egiten dutenen batez besteko adina 25etik gorakoa da. Ez lehenago. Nolabait, hormonon garai arraro hori bukatu ondoren” <gaztezulo>

Bere iritziz ahalmen ekonomiko eskasa ez da nahikoa joera hori azaltzeko. Aitzitik, lehentasun kontua dela uste du:

“20 euro dira urte osoan. 17 urteko edozeinek gastatzen ditu 20 euro baino gehiago parrandan edozein asteburutan” <gaztezulo>

Ikastolatik datorrena arbuiatu

Harpidetza egiteko bideak banakakoak dira, baina Gaztezulok “irakurriz gozatu” izeneko egitasmoan parte hartzen darama 2011tik Euskal Erkidegoko hainbat herritako Euskara eta Gazteria Zerbitzuekin batera, aldizkaria jende gehiagorengana hurbiltzeko asmoz. Ikastetxeen bidez doako harpidetza egiten zaie sei hilabetez eta ondoren galdetegi bat pasatzen zaie beraien iritzia eta inpresioak ezagutzeko. Kasu honetan, gazteengana hurbiltzeko kanala eskolak dira, eta horrek erreakzio

interesgarriak sortu ditu, edukiak baino, hau helarazteko bidea bera oztopo izan daitekeela iradoki baita.

“Ikastolaren eskutik datorkien edozer gauza adin horretan gaizki ikusten dutela. Ordun, hemen egin dezakegu izugarrizko ahalegina aldizkaria betetzeko gazteen gustuko edukietan , baina ikastolaren eskutik iristen bada, akabo! beste bideetatik iritsiz gero, hobe....” <gaztezulo>

Erreakzio interesgarria eta xede taldeari egozten zaion izaerarekin bete-betean bat egiten duena. Produktu berbera gazteentzat prestigiotsua den eremu batetik etorrira edo kanal *ofizialagoetatik* - edo helduek kudeatutako erakundeetatik- etorrira, harrera zeharo desberdinak jasotzen ditu. Euskalgintzaren aldetik aspektu honen gaineko hausnarketa egitea beharrezkoa da, asko baitira azken urteetan erakunde hauetatik egin diren hurbiltze saioak. Hainbeste dira belaunaldi berrietan jarri diren esperantzak, eta hainbeste dira helduen instituzioetatik gazteak limurtzeko egiten diren saiakerak, gazteak bere terreno autonomoan egindako intrusio gisa senti ditzakeela erakunde instituzionaletatik (eskola, aisialdi antolatua, administrazioak) egindako saiakera guzti hauek, eta ustekabeko ondorio gisa, bilatzen den efektuaren kontrakoa lortzeko aukera handiak daude.

Non daude harpidedunak?

Harpidedunen kokapen geografikoak datu interesgarriak ematen ditu. Lehen inpresioak esango liguke zonalde euskaldunenetatik datozela, eta hein handi batean horrela bada ere, Gaztezuloren kasuan kontrakoa dioen joera bat azpimarratu nahi izan digu elkarrizketatuak.

“Egia da harpidedunen zaku handiena Gipuzkoan dugula, azken finean Donostian jaiotako proiektua da. Baina harpidetza bere kabuz egiten dutenen artean, gehienak euskaraz bizitzeko zailtasunak dituzten lekuetatik datoz: Iruinerria, Araba ... badirudi hemen (Gipuzkoan) eskaintza zabalagoa dela eta ez dela baloratzen produktuetako bakoitza.” <gaztezulo>

Euskal Herria osotasunean kontuan hartzen dituzten produkzioak izanik, ahalegin berezia egiten da lurralde guztietara iritsi eta edukietan oreka lortzeko, zailtasunak zailtasun.

“Guri dagokigunez, edukietan islatu behar da ere aniztasuna, zaindu behar da. Saiatzen gara zaintzen. Zaila da erredakzioa hemen edukita. Giputxilandiarra jotzea beti da erosoagoa” <gaztezulo>

“Iparraldeko lanak askotan ekartzen ditugu. Saiatzen gara oreka bat lortzen normalean ateratzen denarekin” <hitzen uberan>

Lurraldetasuna kontuan hartuta, Gaztezulok zailtasunak aitortu ditu Iparraldearekin, bereziki:

“Guk askotan esaten dugu iparraldea ezezagun handia dela. Askotan esaten dugu baton baten kontaktua behar dugula jakiteko zer egosten den han.” <gaztezulo>

Izan ere, bertako edukiak bilatzea gauza bat da, baina bertan presentzia lortu edo bertako jendearekin harreman egonkorrak lortzea, beste bat:

“baina gero harpidetzak eta horrela sustatzea nahiko gauza konplikatu da, batez ere ... identifikatzea ze gunee edo elkarte izan daitezkeen euskaldunak biltzen diren horiek.. zaila da.” <gaztezulo>

Pentsa daiteke baieztapen hau *hegoaldezentrismoaren* ondorio izan daitekeela, baina bertako jendeak ere zailtasunak aitortu ditu:

“Orain dela gutxi hemen izan ziren EHZ jaialdiko arduradunak (...) eta kontatu genien, “nahiko genuke zabaltu Gaztezuloren irudia eta jendeak ezagutzea Gaztezulo iparraldean”, eta beraiek esan ziguten “guk badugu ematea jende gazte eta euskalduna biltzen diren tabernen izenak, gaztetxeen izenak” ... baina beraiek aitortu ziguten oso zirkulu itxiak izaten direla askotan eta bai bidaltzen ahal dugula informazioa gaztetxe batera, baina seguruenik gero ez dela feedbackik egongo, oso ohitura gutxi dutela beraiek egiten dutenaren berri zabaltzeko. (...) askotan paso egiten dutela eta zirkulu itxiak izaten direla askotan.” <gaztezulo>

Ez da lan erraza egoera honi azalpen egokia ematea, baina euskarak iparraldean bizi duen egoerak jokaera hau parte batean azaldu dezake. Euskararen transmisioaren eten larria eman da azken urteetan eta baliteke galera progresibo honek bereziki kolpatzea belaunaldi gazteenak berez desegituratuta dagoen euskal hiztunen komunitatean. Horrek ekar dezake sortzen diren gunee horiek (*jende euskalduna biltzen den taberna edo gaztetxeak*) beren baitara biltzea harreman sare edo produkzio sistema periferikoa izatearen ondorioz.

Generoa

Ez bakarrik lurraldetasunari dagokionean, Gaztezulon, gainera, generoaren ikuspuntua oso barneratuta daukate, eta garrantzia berezia dauka:

“eta hau ez dakit behar bezain beste zaintzen den hedabide guztietan”

<gaztezulo>

Guk elkarriketatu ditugunetan, behintzat, elkarriketa honetan soilik atera da gaia. Adierazgarria da gazte kultura eta generoaren arteko harremana tradizionalki honela izan baita kontsideratua:

“Las culturas juveniles han tendido a ser vistas como fenómenos exclusivamente masculinos. De hecho, la juventud ha sido definida en muchas sociedades como un proceso de emancipación de la familia de origen y de articulación de una identidad propia, expresada normalmente en el mundo público o laboral. En cambio, para las muchachas la juventud ha consistido habitualmente en el tránsito de una dependencia familiar a otra, ubicado en la esfera privada. La reclusión femenina en el espacio doméstico las ha alejado de la calle o de los locales de ocio, espacios privilegiados de las culturas juveniles” (Feixa, 1998, 90. orria)

Tradizionalki kalea gizonezkoen espazioa izan delako, gazte kulturaren adierazpide adierazgarrienak mutilek egindakoak izan dira, baina hemen ere aldaketak ematen dira. Harpidetzen kasuan, beharbada ekintza pribatua edo intimoa delako, *Gaztezuloren* kasuan behintzat, neskak gehiago dira.

Krisia(k)

2008tik mundu mailan bizi dugun krisi sistemikoak halabeharrez eragin du berez ahula den sektore honetan.

“publizitate gutxiago sartzen da, harpidetzak galtzen ari dira...”

<gaztezulo>

Krisiak baina, ez dauka aurpegi bakarra eta faktore aunitzek eragiten dute. Horretaz gain, badira lehenagotik etorri zirenak, teknologia berriek, Internetek bereziki, paperezko hedabide idatzietan eragin zuena, adibidez. Horrexegatik ez da erraza izaten jakitea zergatik ematen diren aldaketak:

“jendeak ez duelako paperean irakurri nahi edo jendeak gastuak kendu nahi dituelako gainetik? (...) eta publizitatea? ez dutelako paperean sartu

***nahi? bai, baina baita gastu gutxiago egiten delako publizitatean”
<gaztezulo>***

Krisi ekonomikoa, idatzizko komunikazioen krisia edo paperaren krisia... baina baita betiko krisi *geureagoak* ere, euskalgintzaren ahalmen ekonomikoari dagokiona. Jakina da egoera hauetan administrazioak egiten dituen aurreneko murrizketak kulturaren arlokoak direla, eta hori horrela, kulturak orri idatzietan geroz eta presentzia txikiagoa duela salatu du elkarrizketatuetako batek. Informazioaren aroan, paradoxa ematen da arlo honetan:

“Bai, informazio bide asko daude, baina gero eta gutxiago. Geroz eta urriagoak dira krisiaren eraginez, ekitaldien berri, aurkezpenen berri, idazleen berri emateko aukerak. Paperezko komunikabideetan kultur orriak gero eta gutxiago dira, agenda gero eta txikiagoa da, telebista saioak desagertu dira, irrati saioak desagertuko dira ... geratzen ari gara, modu kezkagarri batean, zirrikitu eta erakusleihorik gabe.” <hitzen uberan>

Erakusleihoak desagertzen, eta esan bezala, badaudenak ez dabiltza barra-barra. Hauek dira aipatu dizkiguten muga nagusiak:

“Mugak... ekonomikoak nagusiki. Aberatsak bagina munduko aldizkaririk onena egingo genuke, kar kar kar kar!” <the balde>

“Muga? ekonomikoa. Diru gehiagorekin, baliabide gehiagorekin, gauza handiagoa egingo genuke. Aparte, kolaboratzaile gehiago ...” <entzun!>

Krisi honi iraungitzen data jarri diote, gainera. Hori noiz izango den ordea... jakiteke dago oraindik,

“Gure herrian diglosia gainditzten den arte ez dauka erremediorik, defizitarioa izango da.” <gaztezulo>

Ezin da ahaztu prentsa mota hau espezializatua dela, eta berez, ez duela publiko zabala jomugan:

“gertatzen da musika prentsa orokorrarekin, ez dira aldizkari masiboak, ezta erdaraz ere. Gauza espezializatua da. Irakurle musikazalea da. (...) Ez dira maioritarioak.” <entzun!>

“Nik uste ez garela aldizkari maioritarioa. <the balde>

“Gure irakurle kopurua? ale bakoitzeko hiru irakurle, hori da prentsan egiten den bataz besteko kalkulua. Atera kontuak...” <entzun!2>

Kontuan hartu behar da telebistako audientziak estimazio bidez kalkulatzaren diren bezala, berdinean egiten dela idatzizko hedabideekin. Dena dela, ez pentsa egoera hau prentsa gaztearen ezaugarri berezkoa denik, euskarazko idatzizko hedabide paradigmatisak ere kinka larrian baitaude, gogoratu Berria egunkariak abian duen ziztadak kanpaina edo Interneteko zuzen albistarian Argia aldizkariaren kultur saileko arduraduna den Gorka Bereziartuak adierazitakoa: ***“Ez, euskaraz ari den ezerk ez du erraza aurrera egiten, eta bereziki bizi dugun garai hauetan. Denok gabilta oso estu eta gu horretan ez gara salbuespena. Azkenean irudimen askorekin, lan ordu askorekin eta horrela egiten da aurrera”¹¹.*** Irudimena eta lanerako grina da hain zuzen ere lau elkarriketatuek soberan dutena.

“Guk beti aldarrikatzen dugu irudimena ez dela soilik aldizkarian jarri behar baizik eta aldizkariaren gestioan ere bai.” <the balde>

Hiztun komunitatea, irakurle komunitatea?

Lehen esan bezala, produkzio hauek ikusi, irakurri, erabili, erosiko duenik behar da, kontsumitzaileak, alegia. Gure kasuan, baina, produkzio hauek ez dira heltzen irakurle potentzial guztiengana: ***“Lortuko bagenu euskal hiztunek euskarazko produktuak kontsumitzea ez litzateke hain minoritarioa izango, baina ez da lortzen”¹².*** Hemen dago gakoetako bat, izan ere euskararen ezagutzaren tendentziarekin kontraesanetan dago joera hau:

Gaur egun euskal kultur produktuen arazo nagusia merkatuan dago. Alegia produkzioaren eta kontsumoaren artean etena dago. Paradoxa argia da: inoizko euskaldun kopururik handiena eta jantziarena dagoenean, ez dago kontsumitzaile nahikorik, edota euskaldun kopuruak ekarri beharko lukeen adinako kontsumorik.¹³

¹¹ Zuzen: <http://zuzen.com/2012/05/26/gorka-bereziartua-kontrakulturatik-emaizta-hobeak-aterako-genituzke/>

¹² Zuzen, elkarriketa berean

¹³ Sorguneak ikertegia: *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan*, Mondragon Unibertsitatea, 2008

Honen adierazle da pasarte esanguratsu hau, Leire Narbaizaren “Kalamuatik Txargainera” blogean topatua:

“Egun batean, klasean, 3.mailako (EGA) ikasleei artikulu batzuk banatu nizkien, ia egunero egiten dudan bezala. Seguruenik, Onintza Enbeita edo Anjel Lertxundiren bat izango zen, ez naiz gogoratzten. Edizio digitaletik inprimatuta zeuden; beraz, Berria.info logoa zeramaten. Banatutakoan ikasle berri batek, mutil jatorra, ikastolan ikasitakoa, baina bertatik irten zenetik euskararik egin ez zuenak, galdetu zidan: "Leire, ikusi dut banatzen diguzun orrietan beti helbide bera agertzen dela. Zer da, euskaraz dagoen web orriren bat?"¹⁴”

Euskarazko produkzioa euskaldun askorentzat ezezaguna bada, zein da Euskal Herriko prentsa erdaldunean jasotzen duen oihartzuna?

“idazle oso ezagunak diren kasuetan badakite 3-4 elkarrizketa eroriko zaizkiela eta beti euskarazko komunikabideen aldetik, komunikabide erdaldunen arreta hutsaren hurrengoa delako. Baina ez horren ezagunak direnean segur aski gutxiago edo ezer ez” <hitzen uberan>

Hauxe da *hitzen uberan* bezalako webgune baten izateko nagusietako bat; ahotsa ematea sortzen dabiltzan eta proiektiorik ez duten idazleei.

Dena dela, elkarrizketatu guztiek badakite zer suposatzen duen hizkuntza gutxitu batean lan egitean eta horrek ez ditu kikiltzen, bere alde ona ere baduela esan digute:

“Hizkuntza izan zitekeen (muga) baina ez da, batzuetan abantaila bada. Segun eta nola begiratzten duzun” –zergatik?– “Abantaila da ez dagoelako euskaraz halakorik. Desabanataila, besteak indartsuagoak direlako eta jendeak horra jotzen duela (...) ez zaigu gustatzen negar egitea euskararen kontuarekin” <entzun!>

“Gaztea, euskalduna eta kazetaria naizen aldetik, niretzat pribilegioa da hemen lan egitea.” <gaztezulo>

¹⁴ <http://eibar.org/blogak/leire/egunkari-euskaldun-hutsa-ikusezina-da>

Euskara: erregistroak eta kalitatea

Euskararen gaia mahai gainean genuela, gazteengana heltzeko erregistro edo euskara motaren gainean galdetzea derrigorrezkoa zitzaigun:

“Hizkuntzari dagokionez, ahalik eta hizkuntzarik gazteena erabiltzen saiatzen gara, testu aldrebesatuak ez, arinak, erraz irakurtzekoak, (...) lizentziak hartu ditzakegu ... Berrian edo beste batean lekurik izango ez luketenak (putada, kriston, hika aritzea ,....)” <gaztezulo>

Gaztea izatea antidotoa izan daiteke zenbait araren zurruntasunaren aurrean, baina horrek ez du esan nahi haustura defenditzen denik. Euskara batuaren erregistroa zabaltzeko saiakerak dira, funtsean.

“oso aske jokatzeko ohitura dugu. Kolaboratzaile bakoitzak nahi duen moldean idazten du. Saiatzen gara beti ere ortografikoki eta gramatikalki zuzenak izaten.. baina hortik aurrera.. e... naturaltasuna da bilatzen duguna” <the balde>

“Margen gehiago daukagu beste hedabideek baino, beti zuzentasunaren barruan, baina baditugu besteek ez dauzkaten lizentziak. Beti arauak errespetatuz, ez gara joango orain Euskaltzaindiaren aurka, ez gara matxinatuko.” <gaztezulo>

Matxinada gramatikalik ez, beraz. Deigarria zaigu, horrexegatik, estereotipo iraultzailearen antipodetan dagoen Miren Azkaratek egitea matxinadarako deia: ***“Gazteek hizkuntzaren bizitasuna gorde behar dute eta zentzu horretan hizkuntza ereduak apurtzen utzi behar zaie¹⁵”***. (2008ko apirilaren 20ko Argian.) Zuzentasuna erraietaraino sartuta daukagu, ordea.

“Guk (...) Entzun! aldizkariaren edizioa hartu genuenetik hizkuntzaren atala ahalik eta gehien zaintzea erabaki genuen. Ez gara Euskaltzaindia, baina saiatu gara euskara ahalik eta zuzenena erabiltzen” <entzun!>

Izan ere, beti ez da horrela izan. Entzun! aldizkariaren hasieratik euskararen kalitateari buruzko kezka egon baita presente:

¹⁵ Dena esate aldera, Joxerra Garzia, Kike Amonarriz eta Andoni Egañaren ekarpenen harira egindako baieztapena da hau.

“Gure ahulezien zerrendan beti agertzen zen. Noiz arraio hasiko gara euskaraz txukun eta zuzentasunez idazten?” <entzun!2>

Garai hori gairidituta, beste batzuk dira gaur egungo kezkak:

“badago beste gauza bat kezkatzen nauena; euskara modu oso formalean erabiltzen dugu: kostata lortzen ditugu espresio berriak eta erakargarriak, zuzenak... Idazkera zaindu bai, baina espresibide berriak behar ditugu ere, edo faltan ditugu, eta askotan beste hizkuntzetan bilatzen ditugu...” <entzun!>

Zuzentasuna lortuta, bizitasuna da hurrengo geltokia. Izan ere, euskara formalegiaren herentziaren ajeak ordaintzen ari gara; Koldo Izagirre idazleak 1981ean ohartarazi gintuen: ***“Mintza eta idazketa korrektu bat ahalegindu gara egiten, estilorik gabeko bat, jardun neutro bat, mintza eta idazketa inuzentaren bila.”*** (Izagirre 1981: XXII). Zuzentasunaren mesedetan bizitasunaren sakrifizioari kaleko egoera diglosikoa gehituta, espresibide propioak eta berritzaileak sortzeko baliabide nahikorik gabe daude euskal gazteak.

Erreferentzia esparrua

Euskal Herrian kokatuak egoteak ez du esan nahi soilik Euskal Herrira begiratzen denik, begirada zabala nagusitzen da.

“erreferentzia Euskal Herrian daukagu, baina munduan bizi gara. Ardatza eta bizkar-hezurra euskal musika da eta barruan euskaraz kantatzen dena. Baina munduan bizi gara, beste lekuetan asko daukagu ikasteko eta gauza oso onak egiten dira, eta ezagutzen ditugun gauza interesgarriak ezagutzera ematen saiatzen gara. Kanpoko musikak bere lekua dauka.” <entzun!>

Batzuk kanpokoaren eskizian bizi dira, eta beste batzuk kanpora irtetea dute xede:

“Hasieratik nahi genuen gure mugetatik at atera. Guk kultura horrela ulertzen dugulako. Egiten duguna Aizarnazabal, Madril, Paris, London eta Tokiora iritsi zedin nahi genuen.. eta horretarako zer hobea euskara eta ingelesa baino?” <the balde>

Harremana irakurleekin

Irakurleen partetik zer jasotzen duten galdetu diegu, lanaren helburuetako bat sortzaile-irakurle harremana aztertzea baita. Espero genuena baina ahulagoa da harremana, eta zailtasunak daude aspektu honetan:

“Nolakoak diren gure irakurleak? Fuu ... ze zaila, Interneten badakizu bisita kopurua, baina nor edo nori... oso zaila. Feedbacka harreman pertsonala, edo lanekoak bat edo beste, baina oso zeharkakoa. Oso zaila da, zientzia fikzioa egitea da. Sare sozialetan badago zerbait, intuitu dezakegu...” <hitzen uberan>

Erantzunak, nahiz eta asko ez izan, jasotzen dira, hala ere,

***“Liburua ateratzen dugunean askotan animoak ematen dizkigute”
<entzun!>***

“Gure esperientzia da jendeari gustatzen zaiola eta eskertzen duela” <the balde>

Sare sozialek asko erraztu dute, gainera, harremanetarako aukera eta bi norabideetako da orain lehen norabide bakarrekoa zena:

“Sare sozialei esker. Lehen ez, harremana norabide bakarrekoa zen. Webgunean parte hartzeko aukera dago: erantzunak lehiaketak, agenda kulturala bete dezakete ... sexu kontsultak egin” <gaztezulo>.

Teknologia berriei esker hainbat informazio jaso daiteke gaur egun, nahiz eta ganorazko interpretazioak egiteko aldagai guztiak eskura ez izan:

“orokorrean gure irakurle kopurua ez da egunerokoa, ... astean behin, bitan sartzen da eta denbora dexente pasatzen du orrian” <hitzen uberan>

Aurrera begirakoak

Garbi dagoena da aurrera begirako ibilbidea imajinaezina dela Internetik gabe. Paperezko aldizkari gisa jaio ziren guztiak salto egin zuten sarera eta, gaur egun, irakurle berri gehienak hortik datozkie:

“Internet martxan jarri genuen 2002an ikusteko zer nolako erantzuna zuen, probatzearren ... ikusi genuelako Internet ari zela bihurtzen komunikazio tresna erreferentziala. Ikusi genuen irakurle asko, sarrera asko zeudela” <entzun!>

“baino konturatu gara azkenaldian irakurle pila dauzkagula jarraitzaile fidelak direnak sarean” <gaztezulo>

Horrek estrategia birplanteatzera eraman ditu...

“iritsi zen momentua nahiz eta paperekoa ondo joan ,(...) urtean zehar indarrak jarri Interneten eta urtean behin paperezko edizio berezia egiteko erabakia hartu genuen” <entzun!>

“webgune berriaren apustua. Ahalik eta parte hartzaileena izatea nahi dugu. Material guztia eskuragarri jarri eta ikustarazi zenbat dagoen” <gaztezulo>

... formatuaren potentzialtasunak baliatzeko asmoz:

“Orain berritzen ari gara eta bonbo berezia eman nahi diogu eztabaida guneari (...) (irakurleek) On line elkarrizketak egitea nahiko genuke (...) gune hori indartu nahi da” <gaztezulo>

Dena dela, honek ez du esan nahi sareak paperezko aldizkariak desagerraraziko edo ordezkatuko dituenik. Paperaren heriotza iragartzen duten profeten hotsek ez dute lortu gazte jendea konbentzitzea:

“Paperari eutsi (...) Aldizkaria da gure bandera, eta oraindik ere da gure eduki kuttuna. Mimatuen” <gaztezulo>

2. ELKARRIZKETAK: GAZTEAK.

Honaino aldizkarien sortzaileek esandakoa, orain barraren beste aldean daudenen iritziak ezagutzea falta da. Hasieran esan bezala, irakurleei zuzendutako galdetegiak bi parte ditu; lehenengoa orokorra eta bigarrena aztertutako hedabideetako batean zentratuta, bakoitzak nahi zuena. Hori horrela, lehen parteko erantzunak batera aztertuko dira, eta bigarren zatian aldizkari bakoitzaren gaineko erantzunak banan-banan aztertuko dira.

Galdetegia irekitzeko erabili den galdera irakurzaletasunaren gainekoa izan da.

Irakurzaletasuna: zer, zenbat eta zein hizkuntzatan?

Irakurtzeko ohiturarik ba al duzu? galderari, espero zitekeen bezala, denetarik erantzun zaio. Asko irakurtzen dutenetik gutxi irakurtzen duteneraino. Hala eta guztiz ere, gutxi ala asko, inork ez du “ez dut ezer irakurtzen” moduko erantzunik eman. Irakurtzen den horretan, oso argi bereizten da noiz irakurtzen den lan edo ikasketetarako, eta noiz interes pertsonalek bultzatuta edo aisialdirako.

“Irakurtzekotan haurraren heziketarekin zerikusia duten liburuan irakurtzen ditut” <3>

“Ez gehiegi, baina denbora daukadanean gustatzen zait libururen bat irakurtzea, udaran adibidez. Edozein liburu irakurtzen dut, ez daukat gustu jakin bat.” <1>

“Bai, gustatzen zait irakurtzea. Egunero egunkaria (sakon samar, ez titularrak bakarrik) eta interneten hainbat web-orri. Liburuak irakurtzea gustatzen zait, baina ez dut denbora askorik hartzen horretarako, beraz, urtean 2 -3 liburu bakarrik irakurtzen ditut.” <2>

“Bai, normalean aldizkariak” <4>

“Egia esan ez dut asko irakurtzen. Ikasturtean zehar ez dut denborarik hartzen irakurtzeko eta gehienbat udan irakurtzen dut, baina ez gehiegi” <5>

“bai badut, egia esan denetik pixka bat: bai liburuak (eleberriak batez ere, baita entsaioak ere), aldizkariak (kultura, arte, bidaiak, kooperazioa...) baita web bidez egunkariak, blogak...” <6>

“Bai, handia. Liburuak irakurtzen ditut batez ere, fikzioa: nobela, ipuinak eta tarteka poesia. Saiakerak oso gutxitan. Aldizkaririk apenas irakurtzen dut sarean ez bada. Blogak eta horrelakoak ere bai.” <7>

“Ez. Gehien irakurtzen dudana egunkariak eta komikiak dira, liburuak gutxitan irakurtzen ditut.” <8>

“Bai, nire denbora librearen zatirik handiena irakurtzeari eskaintzen diot: prentsa, aldizkariak, blog eta web orriak, literatura (...) literaturaren barruan nagusiki narratiba irakurtzen dut, eta narratibaren barruan nobela gehiago ipuina baino. Saiakerak eta komikiak ere irakurtzen ditut, eta munduari zein estupendoa naizen erakusteko poesia pixka bat ere bai, pare bat poema-liburu urteko” <9>

“Gutxi, egia esan. Irakurtzeko baino begirada bat emateko zaletasun gehiago dut. Prentsa eta aldizkariak irakurtzen ditut gehienbat. Liburuak, komikiak eta halakoak ia inoiz, opari edo gomendio bat jasotzen dudanean bakarrik. Blogak ere irakurtzeko ohitura dut.” <10>

“Ez, ez dut zaletasunik. Orokorrera thriller-ak, ikerketa eta misteriozkoak.” <11>

Beste ezaugarria izan da aipatu diren euskarri ezberdinak: liburuak, aldizkariak, komikiak, egunkariak, blogak, web orriak etab. izendatu baitira, eta horien barnean, irakurzaleenek, generoak izendatu dituzte (eleberriak, saiakerak, poesia, kultura, arte bidaiak, komikiak ...). Deigarria da inork liburu elektronikoa aipatu ez izana.

Hurrengo galdera hizkuntzari buruzkoa izan da.

Irakurtzen duzun hori, euskaraz ala gaztelaraz? zein proportziotan? ia elkarriketatu guztiek bietatik irakurtzen dutela esan dute. Bakarrak esan du *dena gaztelaraz* irakurtzen duela, eta ez da topatu *dena euskaraz* irakurtzen duenik. Alde horretatik, eta irakurleak jasotzen dituen inputak hizkuntzaren arabera zeharo desberdinak direla kontuan hartuta, euskaraz irakurtzearen ekintza hautu kontzientea dela ondorioztatu daiteke:

“Normalean irakurtzen dudana guztia euskaraz saiatzen naiz irakurtzen”

<3>

“Bi hizkuntzetan irakurtzen dut, baina euskaraz irakurtzea nahiago izaten dut.” <1>

“Liburuak normalean euskaraz irakurtzen ditut eta egunkaria ere bai.”

<2>

“Liburu bat euskaraz eta gaztelaniaz badago, euskaraz irakurtzen dut.” <9>

Aurreko galderan aipatu den bereizketak (*beharra / aisialdia*) eta hizkuntza bakoitzean dagoen produkzioaren tamainak halaberrez baldintzatzen du hizkuntzaren hautaketa.

“lanetik kanporako gauzak gehiago euskaraz, baina nahiko paretsu (%50 ggb), laneko gauzak (kooperazioa) beste hizkuntzetan (gaztelaraz batez ere, portugesez asko ere).” <6>

“(…) baina arlo honetan (hezkuntzari buruzko liburu teknikoak) dagoen gabezia dela eta zoritxarrez gaztelaraz irakurri behar izaten dut.” <3>

“Gaztelaniaz gehiago irakurtzen dut, gustuko testu (aldizkari, web-orri, liburu) gehiago aurkitzen ditudalako euskaraz baino.” <9>

Beste batzuek, euskaraz irakurtzea nahiago badute ere, gaztelaraz irakurtzea atsegin dutela diote, eta saiatzen dira ohitura mantentzen:

“Irakurtzen dudan gehiengoa euskaraz irakurtzen dut, baina noizean behin gaztelerazko liburuak irakurtzea ere gustatzen zait. 10etik 7 euskaraz irakurtzen ditudala esan daiteke.” <5>

“hamarretik erdia edo euskaraz.” <7>

Badira, lehen esan bezala, gazteleraz euskaraz baino gehiago irakurtzen dutenak.

“Euskaraz baino gehiago gazteleraz, 10etik 4 euskaraz.” <4>

“gehiena gazteleraz, euskaraz 10etik 4.” <8>

“Gaztelaniaz gehiago irakurtzen dut euskaraz baino, %80 gaztelaniaz, %20 euskaraz”.<9>

Edo dena edo ia dena gazteleraz irakurtzen dutenak:

“Normalean, gazteleraz ia dena. (...), 9/1 gazteleraren alde” <10>

“10etik 10 gazteleraz.” <11>

Informazioa edo erreferentziak nondik jasotzen dituzten galdetuta, nabarmena da lagunen iritzien eragina. Gaztaroan berdinen arteko harremanetan gorpuzten dira praktika kultural eta aisialdikoak, eta fidagarritasun handiagoa zor zaio lagunari bestelako edozein adituri baino. Lankideak eta ikaskideak multzo honetan sartuta, bik izan ezik, guztiek aipatu dute informazioa jasotzeko iturri garrantzitsuena horixe dela. Honen atzetik datoz egunkariak eta aldizkari, web orri edo blog espezializatuak ***“Gaur egun, Internet izaten da gauzak, ezagunak eta ezezagunak, topatzeko lekua” <10>***. Adinean behera jaitsiz, irakasle edo liburutegiko arduradunaren gisako figurak agertzen dira erreferentzia emaile gisa. Publizitatea ere aipatu dute bi elkarriketatuk, eta beste batek, literaturaren esparruan, orain hilabete batzuk desagertutako *Sautrela* telebista saioa.

Erreferentzialtasuna

Gazteei zuzendutako produktuak izendatzeko eskatu zaie elkarriketatuei. Nahita, hizkuntza ez da aipatu, buruan dauzkatenak zein erreferentzia gunekoak diren jakite aldera. Ikerlaria nondik datorren eta ikerketaren objektua ezagutzeak erantzunak euskararen unibertsoan zentratu direla esatera ausartzen naiz, jaso diren erreferentzia gehienak euskarazkoak izan direlako.

Arlo honetan, aipagarria da *Gaztezulo* aldizkariaren presentzia, hiruk izan ezik beste guztiek aipatu baitute aldizkari hau. Enpresa munduan hain bogan dagoen *posizionamendua* ondo finkatuta duenaren seinale. Bete nahi duen espazioaren jabe da Donostiako aldizkaria, erreferente argia. Gaztea irratia bostek aipatu dute. Deigarria, eta adierazgarria aldi berean, da biak ala biak *gaztea* hitza txertaturik izatea izenean, eta horrek, ezinbestez, identifikazioak errazten ditu. Izan ere, beste hainbat erreferentziekin zalantzak sortzen baitira xede taldeari dagokionez: ***“The Balde gazteentzat da zure ustez? eta zenbait komiki ere bai? nik ezetz uste dut” <7>***. Aipatu diren beste izenetako batzuk eta gazteen esparruan sailkatu daitezkeenak dira, euskaraz: *The Balde*, *topatu.info*, *Entzun!*, *Bionika* irratsaioa (musika elektronikoari eskainitako saioa, Hendaiaiko *Antxeta* irratitik), eta jada desagerturik dauden *Berria* eta *Gara* egunkarietako gazteentzako gehigarriak. Eta gaztelaraz: *TMEO*, *El Jueves* eta *Surfer Rule*. Muga lausoen adierazgarri da hauekin batera izaera orokorreko edo publiko zabalarik zuzendutako hainbat publikazioren izenak agertu izana, hala nola: *Argia*, *Goierritarra*, *Sustatu*, *Hik Hasi* euskaraz, eta *Pyrenaica*, *El Pais Semanal*, *Diseño Interior* eta *Pasajes de Arquitectura y Urbanismo* gaztelaraz, edo telebistako *Goenkale* edo *El conquistador del fin del mundo* saioak.

Telebistari dagokionez, gazteentzat probetxugarria denik ez dagoela esan duenik bada: ***“telebistak ezer interesgarriarik ez, kontsumismoa baizik ez du bultzatzen ...”<3>***. Era berean, *Gaztea* irratia kritika zorrotzen bat jaso duela esan beharrean gaude: ***“E-gaztea penagarria da, ez dela euskarazko produktu bat esango nuke.” <7>***. Era berean, elkarriketatuen ironiaren jomuga ere izan da: ***“ah, baina Euskadi Gaztea gazteei zuzenduta al dago?”<6>***.

Kritika eta ironiaz haratago, interesgarria da Gazteari buruz ***“ez dela euskarazko produktu bat esango nuke”*** adieraztea. Izan ere, euskarazko hedabidea denaren inolako zalantzarik ez dago, kasu honetan, beraz, elkarriketatua irratikatearen erreferentzia esparruaz ari dela esan daiteke, gehiago zehaztuz ***“ez dela euskal kulturako produktu bat esango nuke”*** adieraziz, segidan ematen baitu horren azalpen zehatzagoa: ***“Eta euskal kultura ez. Erdal kultura(k) euskaraz islatzen dituztela uste***

dut”<7>. Ñabardura hori ez da alferrikakoa, izan ere, euskaraz edozein gai landu daiteke, beste kontua da euskaraz izateak euskal kultura edo erreferentzia eremu euskaldunera mugatu behar dela sinestea. Hori horrela, egia da ardura maila desberdinak daudela pertsona bakar batek kudeatzen duen blog baten eta irrati publiko baten artean, zalantza izpirik gabe, eta arlo honetan Gaztea irratia, eta hedaduraz, baita EITB osoak ere, birplanteamendu sakona behar duela oso zabaldua dago euskal hiztunen komunitatearen baitan¹⁶.

Esparru zehatz horretan kokatzen diren argitalpen edo erreferentzia nagusiak aipatuta, hauek jarraitzen ote dituzten galdetu zaie jarraian. Erantzun hauek hobeto ulertze aldera, adierazi behar da jarraipen hori aurretik aipatu dituzten erreferentzien arabera izan dela. Dena dela, atal honetan erantzunak nahiko antzerakoak dira eta ondorio gisa nabarmentzekoa da elkarrizketatutako gazteek, salbuespenak salbuespen, ez dietela aparteko jarraipenik egiten hedabide hauei.

“Ez askotan, tarteka”. <1>

“Batzuetan, gutxi”. <4>

“Ez gehiegi”. <8>

“Ohitura badaukat, nahiz eta ez izan oso handia”. <3>

**“(…) baina ez ere jarrai batian, noizean behin, eskura “etortzen”
zaizkidanean, tabernetan gehien bat. (...) Baina ez nago harpidetuta”.**
<6>

**“Ez ditut jarraitzen. Gaztezulon elkarrizketa batzuk irakurri izan ditut
pertsonaia interesatzen zitzaidalako”. <7>**

Beste batzuek gehixeago begiratzen dituzte, hala ere, ezin esan erosle fidelak direnik:

¹⁶ Asko dira honen adibideak, horien artean berrienetakoa, Telebistaren gainean, batez ere, Jon Sarasuarena: “*Euskal Telebista eta euskal telebista: Euskarazko telebista esparruaz eztabaidarako gogoeta bat, 2012*”. Interneten eskuragarri: <http://www.scribd.com/doc/99682844/TelebistaEsparruazJonSarasua>

“Gaztezulo oso noizean behin irakurtzen dut. Ez dut aldizkaria inoiz erosi. Irakurtzen dudanean, beste web-orriren batean interesatzen zaidan zerbait ikusi dudalako jotzen dut aldizkariaren atarira.” <9>

“Gaztezulo lehen bai baina orain ez, noizbehinka irakurtzen dut eta Goierritarra gehienetan irakurtzen dut, etxera iristen denetan. (...) Topatu.info web gunean egunero sartzen naiz eta Euskadi Gaztea ez dut entzuten, lehen noizbehinka entzuten nuen, baina orain ez.” <5>

“Topatu.info bai, egunero. Gaztezulo zenbaitetan.” <2>

“Boladaren arabera gehiago edo gutxiago, baina normalean eskura izaten ditut eta denbora izaten dudanean irakurtzen ditut” <10>

Aurreko atalean aipatu da irakurle-masa handiagoaren beharra, eta erantzun hauek, egia esan, produkzio hauekiko entusiasmo txikia adierazten dute.

Informazio bila

Galdetuta ea zertarako jotzen duten eurengana, argi dago informazio iturri gisa edo ikasketa, lanbide edo zaletasunekin daukan loturarengatik erabiltzen direla.

“Informatzeko batez ere.” <2>

“Nire ikasketekin lotura duten hainbat artikulu, liburu ... aurkezten dituztelako eta momentu honetan interesatzen zaidan informazioa argitaratzen dutelako.” <3>

“Nire lanbide eta zaletasunekin loturiko aldizkariak dira gehienbat irakurtzen ditudanak” <10>

Arreta ematen du oso gutxik azpimarratu dutela hedabide hauei aurre-irudika dakiekeen aspektu ludikoa.

“Informazio kuriosoen bila, baina beste batzuetan denbora-pasarako, xolomo bokataren zain nagoen bitartean.” <6>

“Informatzeko eta denbora pasatzeko.” <1>

“Informatzeko eta ondo pasatzeko, noski.” <5>

Amaitzeko, gazteei bereziki zuzendutako euskarazko produkzioa nahikoa dela iruditzen ote zaien galdetu diegu. Ia aho batez, elkarriketatu guztiek gehiago behar dela esan dute:

“Ez” <3>

“Gehiago egon beharko litzatekeela iruditzen zait”.<4>

“Ba, nahiz eta asko jarraitzen ez dudana, iruditzen zait ez dela oso oparoa izango gazteei zuzendutako euskarazko produkzioa” <10>

“nire zaletasunei buruzko edukiak faltan botatzen ditut. (...) Literatura, musika, komikiak eta zinemari buruzko web-orriak, Egunkarietan kultura-gehigarri ganorazko bat eta irrati eta telebista publikoetan kulturari buruzko programazioa” <9>

Dagoena, gainera, hobetu beharra dagoenaren nahia adierazi da. Erakargarriagoa egin behar dela, alegia. Hori nola lortzen den, edo erakargarritasunaren kontzeptupean adostasuna lortzea, ordea, ez da lan makala izaten.

“Gehiago egin daitekeela uste dut eta gainera modu erakargarriago batean egin beharko litzatekeela ere bai.” <1>

Euskaraz sortzen den produkzioa gizartean dagoen erabileraren baitakoa dela aipatu du beste elkarriketatu batek:

“ez, baina gizarteak daukan hizkuntz erabileraren isla dela uste dut.” <8>

Beste batzuentzat arazoa ez dago kantitatean, jorratzen diren gaien aniztasunean baino:

“Kantitate aldetik faltan botzen dut dibertsitate gehiago (...) kalitate aldetik faltan botzen dut gizarte gaietan sakonduko lukeen produktoren bat” <6>

Honaino galdetegiaren lehen zatia dagokiona, aurreko orrietan esan bezala, bigarren partean kasu espezifikoa aztertu nahi izan dira eta horretarako aurreko atalean aztertu ditugun lau hedabideetako bat aukeratu utzi zaio bakoitzari eta horiei buruzko iritzia eskatu dira. Horretarako, aldizkari bakoitzaren erantzunak banaka aurkeztuko dira.

2.1. GAZTEZULO

1. Zer da gehien gustatu zaizuna?

Gaien aniztasuna eta informazioa atalka banatzea baloratu dira oso ondo. Horrekin batera, elkarrizketak, musika eta protagonistak atalak nabarmendu dira.

“Hasteko atalka banatuta egotea asko gustatzen zait. Izan ere, honekin interesatzen zaizun horretara joateko aukera duzu” <1>

“Gehien gustatzen zaidana da lantzen diren gaietan aniztasuna dagoela, denetik pixka bat: musika, politika, sexua, elkarrizketak...” <2>

“Elkarrizketak” <3>

“Musika eta protagonistak atalak”. <4>

2. Zer nabarmenduko zenuke?

Nabarmentzekoen artean sexuaren atalak aipamen bat baino gehiago jaso du. Kontsultak egiteko aukera ere oso ondo baloratu da, eta nola ez, baita musikaren atala ere.

“Nire ustez, sexuaren atala.” <1>

“kontsultak egiteko aukera ere oso ondo dago, sexuari, interneti... buruzko kezka argitzeko aukera ederra da.” <2>

“Musika” <3>

“Sexuak eta musika”. <4>

Gazteen inguruko hainbat topikori aurre egiteko balio duela nabarmendu du elkarrizketatu batek, gazteei egozten zaien *pasotismoari* buruzkoa, batik bat.

“Nabarmendu nahiko nuke politika ere (herri-mugimenduak, feminismoa, mundua...) lantzen dela. Askotan esaten da gazteoi musikak eta parrandak besterik ez zaigula interesatzen eta gaztezulon denetik aurkitzeko aukera dago, errealitatean guztia interesatzen zaigulako.” <2>

3. Eta gutxien gustatu zaizuna? zeintzuk dira gaztezuloren hutsune nagusiak, zure ustez?

Gutxien baloratutakoen artean badaude aspektu teknikoagoak, gaien banaketan gainekoak, adibidez:

“Sexu atalean, esaterako badaude kontsultak, baina nire ustez beste zenbait atal ere agertu beharko lirateke. Adibidez, definizioak, mitoak, gertaerak ... Modu erakargarriago batean landu beharko lirateke gaiak”. <1>

Euskal Herriari eskaintzen zaion tartea txikiegia dela uste duenik ere bada:

“Euskal Herriari buruzko albiste gehiago.” <4>

Eta beste batzuentzat, gaiei egiten zaien hurbilpena edo tratamendua ez da behar bezain erakargarria:

“nire ustez (edukiak) orokorrean nahiko aspergarriak direla uste dut eta modu erakargarriagoan aurkeztu beharko liratekeela”. <1>

4. Euskarak balio erantsia ematen al dio aldizkariari?

Galdera honetan irakurleek aho batez adierazi dute adostasuna. Orokorrean mota honetako eskaintza gutxi dagoela adierazteaz gain, gazteek gazteontzat egindako produktua dela azpimarratu dute.

“Bai, noski. Garrantzitsua iruditzen zait (...) gai hauek euskaraz lantzea”. <1>

“Ez luke hala izan behar, naturalena hori litzateke, baina egia da oso aukera gutxi dugula gazte euskaldunok halako komunikabideak, euskaraz topatzeko, gazteok gazteontzat egindakoak, alegia.” <2>

“Bai, izugarria, nik behintzat asko baloratzen dut hori.” <4>

Gazteek erabiltzen duten euskara mota kezka iturri da hainbat sektoretan eta aspektu honi buruzko iritzia ere jaso nahi izan da.

5. Euskara motari buruz zer bait aipagarririk?

Aldizkariaren arduradunak azal dutako askatasuna edo lizentziak ongi baloratzen dituzte irakurleek eta horri esker aldizkariaren euskarari freskotasuna dariola erantzun dute.

“Euskara freskoa, arina, kalekoa...” <2>

Beti ere estandarraren mugen barruan, baina irakurleei dagozkien ataletan euskalkiak agertzeko aukerarekin. Hori ere ondo baloratzen da:

“Batez ere, euskara batua, baina kontsultetan norberaren euskalkia ere ager daiteke.” <1>

Izan ere, zurruntasunik ez zaio ikusten sumatzen erabiltzen den erregistroari, euskara batuan libre eta adierazkor egin daitekeela frogatuz.

“Batua, euskara jatorra”. <4>

2.2. THE BALDE

1. The baldek erantzuten al ditu zure nahiak?

Gustukoa duela erantzun dute elkarriketatuek, dena dela, irakurleen exigentzia maila ez da handiegia.

“baietz esan dezaket, baina egia esan ez dut halako espektatiba berexirik berarengan, grazia egiten didala esan dezaket, ez besterik.” <6>

Aldizkariaren koordinatzailearekin bat egiten du horretan,

“Ez zaigu jendea haserretzen. Ez gara batere garrantzitsuak jendea gurekin haserretzeko ere.” <the balde>

2. Zer da gehien gustatu zaizuna?

Diseinua eta gaiak aipatu dira, alde batetik:

“Aldizkariaren diseinua eta gaien aukeraketa.” <10>

Bestalde, aldizkariaren beste hainbat aspektu ikusten dira probetxugarriak direnak, edukia edo jarrera, kasu:

“dudik gabe bere puntu “transgresore – pasota” hori, nere ustez oso ongi lotuta dagoena produktu osoarekin: diseinua (ederra benetan, dinamikoa baina nortasuna mantentzen duena), edukiak, formatua, denbora tartea (2 hilabetekaria)...” <6>

3. Zure ustez, eduki horietatik zer da erakargarriena? Zer nabarmenduko zenuke?

Originaltasuna eta beste lekuetan topatzen ez diren gauzak irakurtzeko aukera gailentzen da baita hemen ere:

“hor topatzen duzuna, orokorrian, zaila izango dela beste medioen batian topatzia”. <6>

“Aukeratuko gaiak, egindako elkarrizketak, proposatutako erakusketak, egindako erreportaiak ... ohiko zirkuituetatik kanpo egoten direla” <10>

Irakurleek eta sortzaileak produktuaren kontzeptua partekatzen dute, modu nahiko argigarrian:

“(gure alde erakargarria da) gai bereziak aukeratu eta are modu bereziagoan erakusten ditugula.” <the balde>

4. Zer da gutxien gustatzen zaizuna?

Publizitate gehiegi duela esan da, baina justifikazioa eman da esaldi berean:

“Publizitatea. Ulertzen dut horrelako aldizkari bat egiteko finantziazioa nonbaitetik lortu behar dela eta agian hori da dagoen modu bakarra.” <10>

Beste irakurleak ez du begi onez ikusten elebitasuna,

“ingelesez ere egotia, ez diot zentzurik topatzen, kapritxo bat da.” <6>

nahiz eta aldizkariaren tonuarekiko koherentzia aitortzen dion:

“ ... egia esan, aldizkari osoa kapritxo bat dela esan dezaket, hortan ere behintzat koherenteak dira ;)” <6>

Guztiarekin ados egon ezin eta, aspektu honetan ez datoz bat elkarrizketatu/sortzaileak:

“Hasieratik nahi genuen gure mugetatik at atera. Guk kultura horrela ulertzen dugulako. Egiten duguna Aizarnazabal, Madril, Parisen, Londonen eta Tokiora iritsi zedin nahi genuen.. eta horretarako zer hobe euskara eta ingelesa baino?” <the balde>

Hala eta guztiz ere, ingelesak kutsu politikoa ematen diola irizten du irakurle batek, eta hori gustuko duela dirudi:

“euskera-ingeles binomioa, gaztelerari zaplaztekoa” <6>

5. Zer falta zaio, edo zeintzuk dira, zure ustez, hutsune nabarmenenak?

Hutsuneak identifikatzeko eskatuta, kritiko agertu dira elkarrizketatuak, nolabait, aldizkaria *erosoegia* bailitzan:

“faltan botatzen dut kutsu bidaiariagoa, solidariagoa, mundu osoko gizarte mugimenduei (edo borrokei) aipamen gehiago, lokatz gehiago, ale asko “urbanitaegiak” iruditzen zaizkit, ñoñostiarregiak.” <6>

Edo azalekoegia,

“Sakontasun falta aurkeztutako gaietan. Iruditzen zait adierazten dena azaletik jorratzen dela.” <10>

6. Euskarak balio erantsia ematen al dio aldizkariari?

Euskararen gaiari ez omen dio garrantzia berezirik ematen irakurleak, izan ere, aldizkariaren erreferentzia gunea Euskal Herriatik at ikusten du:

“bai baina nire ustez ez da nabarmenena, eduki asko ere ez dira “barrura” begiratutakok, “kanpotik” datozenak baizik.” <6>

7. Zein euskara mota dago bertan? Erakargarria egiten al zaizu?

Euskara mota propioa darabiltela dio elkarrizketatuak. Gazteuloren kasuan bezala, nortasun handiko erregistroa antzematen da.

*“zaila egiten zait euskara mota hori definitzea, esango nuke oso
“thaBalde”-ra dela euskararen erabilera: ez da kalekoa, baina ezta
Euskaltzaindiakoa ere, nahiko espontanea.” <6>*

8. Euskal kultura islatuta ikusten al duzu aldizkariaren bitartez?

Oso interesgarria izan da irakurleak galdera honi eman dion erantzuna. Bai *The Balde*, zein beste batzuk, topiko edo izateko modu zehatzetatik gaindi dauden identitate eta identifikazioak eraikitze lagungarriak direla aipatu baitu:

*“Baietz esango nuke, baina ez maiuskulaz idazten den Kultura hori, baizik
eta euskalduna izanik “gure herriko topiko handietatik kanpo” bizi nahi
duenaren kultura; eta hori ere bada euskal kultura, euskal errealitatea.”
<6>*

9. Produktu gisa, lehiakorra dela iruditzen al zaizu?

Iritzi kontrajarriak aurkitu dira atal honetan. Irakurleetako bat pozik azaldu da azken emaitzarekin, ezbairik gabe.

“Bai, kalitatezkoa, originala, lehiakorra eta batez ere merkea ;)” <6>

Bigarrenak, nahiz eta gustukoa izan, adierazi digu zerbait falta zaiola:

*“Ez asko. Behin baino gehiagotan ikusi izan dut jendea begirada bat eman
eta aldizkaria zegoen lekuan uzten. Niri gustatzen zait, baina ‘punch’
pixka bat falta zaiola iruditzen zait.” <10>*

2.3. HITZEN UBERAN

1. Zer da gehien gustatzen zaizuna edo zer nabarmenduko zenuke?

*“Azala bera, kalitatean gorabehera handiak dauden arren, Amuak eta
Kaia atalak ere”. <7>*

Azala aipatzen da, izan ere, tarteka aldatzen da eta bertan ilustrazioak, argazkiak edo pinturaren bat olerki batekin batera agertzen da. Hori da web orriaren aurkezpen txartela. Amuak atala, bestalde,

honelaxe aurkezten da web orrian: *“Amuak askotariko piezak harrapatzen ditu: literatur kritikak, bitxikeriak, iruzkinak, perlak... Bidali zurea!”*, irakurleen ekarpenak jasotzeko irekia, eta Kaia atala orri nagusia da, bertan daude gaurkotasunarekin lotutako albiste garrantzitsuenak.

“Idazleei egindako elkarrizketak.” <9>

Elkarrizketak eduki fuerteetako bat da. Bertan, euskal idazle ezagun zein hain ez ezagunei egindako elkarrizketa sakonak topa daitezke, hedabide orokorretan nekez topatuko direnak.

2. Zer da gutxien gustatzen zaizuna?

“Aingura hegodunak, entzun izan ditudanak, puf (...) uste dut ez dutela kalitatearen galbahea pasatzen, denak balio du, dena maila berean” <7>

Aingura hegodunak atala poema musikatuak dira. Musikariek egindako bertsioak izan daitezke, baina ez bakarrik, zenbaitetan olerkarien irakurraldiak agertzen baitira. Web orriaren arduradunarekin egindako elkarrizketan, hain zuzen ere, atal honek gazte jendearen artean izan dezakeen tiradizoa aipatu zuen,

“(gazteek) musikarekin lotuta daudenak – poema musikatuak – dira gehien ikusten dutenak” <hitzen uberan>

Suposizioa izanik ere, aurreko kapituluan aipatu dira segmentuko irakurketak egiteko dauden zailtasun objektiboak, bistan da irakurle bezainbat gustu dagoela eta kasu honetan, ezin urrunago daude bi ikuspuntuak. Honen erakusgarri da ondorengo erantzuna:

“Web-orriaren itxura (diseinua) ez zait asko gustatzen.” <9>

<7> elkarrizketatuari azala gustatu bazaio, <9>ak diseinua aipatu du gutxien gustatu zaion atalaren barnean.

3. Zer falta zaio, edo zeintzuk dira, zure ustez, hutsune nabarmenenak?

Eduki gehiago eskatu dira, nazioarteko literaturari buruzkoak, kritikak, iritzi artikulua gehiago...

“Nazioarteko literaturari buruzko iritzi-artikuluak eta erreportajeak. Liburuen kritikak. Nire iritziz, lehentasuna euskaraz argitaratzen denaren kritikari eman beharko litzaioke, baina literatura unibertsaleko liburuen kritika egotea ere ondo legoke. Era berean, kritika nobedadei buruzkoa zein literaturaren historiako liburu kanonikoei eta ahaztuei (...) buruzkoa izan beharko litzateke. Iritzi-artikuluak euskarazko literaturari buruz.” <9>

Eduki gehiago ez, baina hauen arteko mailaketa faltan bota du elkarrizketatu batek:

“denak balio du, dena maila berean.” <7>

4. Zein da hitzen uberan-en balio erantsia?

Lehen ikusi ahal izan dugun bezala, *hitzen uberan* hutsune bat betetzeko jaio zen, eta erreferentzia bakar batean bildu nahi izan ditu euskal literaturgintzarekin zerikusia duten aspektu guztiak Internetek gure eskura jartzen dituen baliabide guztiak erabiliz. Hain justu ere, horixe da hobekien baloratu duena gure irakurleak:

“Euskal Herrian literaturaren inguruan mugitzen dena jasotzen dute. Beste komunikabideetan (Argian, Berrian, Arratsaldekoan ...) ere bai, baina hemen ia dena. Erreferentzia izan daiteke, batez ere argitalpen berriekin. Eta bideoak, Twitter, testuak... dena baliatzen dutelako”. <7>

“Euskal literaturari buruzko web-orria izatea. Euskal literatura alderdi askotatik jorratzen duela iruditzen zait.” <9>

5. Produktu gisa, lehiakorra dela iruditzen al zaizu?

Jakin badakigu literaturan espezializatutako ekoizpenak ez direla publiko handiegietara iritsiko, horregatik beharbada darie etsipen kutsua jasotako erantzunei.

“Lehiakorra? uste dut lau katuk begiratuko dugula, ez? jendeari, oro har, ez zaio literatura interesatzen. Bere arloan duina dela uste dut, baina lehiakorra ez.” <7>

“Ez dakit baden, eta, errespetuz esanda, ez dit piperrik inporta. Literatura gizartearen gutxiengoari interesatzen zaionez, merkatua aintzat hartuta,

***ezinezkoa da euskal literaturarekin lotuta dagoen edozer lehiakor-
izatea. " <9>***

Egoera ezaxolati hau, gainera, ez da hizkuntza gutxituen monopolioa. Beti ere, handiagoak diren literaturak hizkuntza normalizatueta idazten direnak direla ulertuta.

***"Baieztapen hau "handiagoak" diren literaturei buruz egitera ere
ausartuko nintzateke." <9>***

Ikerlariak, beharbada, ez du asmatu *lehiakor* kontzeptuarekin esan nahi zuena elkarriketatuei ulertarazten, izan ere, kontzeptu hau ez da lotu nahi izan errentagarritasun ekonomikoarekin, kalitatearekin lotutako lehiakortasunarekin baizik. Dena dela, aipagarria da honen harira jaso den erantzunetako bat:

***"Nire ustez kalitateari eman behar zaio garrantzia, eta kalitateari buruz
literatura gustuko dutenek mintzatu beharko lukete, ez guztia eurotan
neurtzen duten kontulariek." <9>***

2.4. ENTZUN!

1. Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Web orriaren gainean, informazioaren sailkapena oso ongi baloratu da.

"bertan eskeintzen den informazioa ondo antolatuta dagoela." <8>

2. Zure ustez, eduki horietatik zer da erakargarriena? Zer nabarmenduko zenuke?

Musikaz diharduen aldizkaria izanik, talde berriei buruzko informazioa, albisteak eta antzerakoak ondo baloratu dira. Horrekin batera, agenda ere eskertzen dute irakurleek.

***"Musika oinarritzat, batez ere hau eta beste hainbat gairi buruzko albiste eta berriak
eskeintzen dituen gunea da. Interesgarria iruditzen zait." <11>***

"agenda, nere ustez gazteok non, zer, noiz jakin-mina daukagu." <8>

3. Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Esan beharra dago <8> irakurleak web orriari egiten diola erreferentzia, ez liburuari.

“multimediako arloa bukatu gabe dagoela eta menuan bukatu gabeko zerbait agertzea etzait gustatu.” <8>

4. Zer falta zaio, edo zeintzuk dira, zure ustez, hutsune nabarmenenak?

“artikulu batzutan taldeen edo bakarlarien link-ak ez daude.” <8>

5. Euskaraz izateak balio erantsia ematen al dio?

Euskararen bidez gertutasuna sentitzen dute irakurleek.

“bai, bertako errealitatetik gertu dagoenaren seinale baita.” <8>

Gaztelerazko informazio uholdearen erdian bereizgarri ere da euskaraz egitea, eta horrela hautematen da:

“Bai, asko. Gaztelerazko hainbat gune daude dagoeneko.” <11>

6. Zein euskara mota dago bertan?

Beharbada gertutasun horri lotuta ulertzeko erraza dela iruditu zaie elkarriketatuei.

“erraza ulertzekoa.” <8>

“Batua, baina ulertzeko erraza suertatzen da.” <11>

7. Erakargarria egiten al zaizu?

Aldizkari espezializatua den aldetik, egunean egoteko erabilgarria da.

“bai, musikalki ze gauza berriak dauden jakiteko tresna ona iruditzen zaidalako”. <8>

“Gaur egungo gaiak dira, talde kontenporaneoak eta punta puntakoak.” <11>

Horixe da egileen nahia:

“Euskal eszenaren ispilu izan nahi dugu” <entzun!>

8. Euskal kultura islatuta ikusten al duzu hauen bitartez?

Hizkuntza komunitatearen ideia sendotzeko baliagarriak dira proiektu hauek, bertakoek bertakoentzat egina.

“bai, bertan edo bertakoengatik egindako lanak direlako.” <8>

“Eszena internazionalak zati handia betetzen du baina euskal kulturari buruzko gai asko dagoenez, bai.” <11>

3. ONDORIOAK

Tamaina honetako informazio uholdearen ostean zaila da hasieran jarritako helburuen berri zehaztasunez jasotzea, asko izan baitira elkarrizketetan jorratutako gaiak. Hala ere, lehen kapituluaren amaieran jarritako galderei erantzuna emateko saiakera egingo dugu, eta horretarako, interesgarriak iruditu zaizkigun bi material gehiago erabiliko ditugu. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2008an euskararen presentzia hedabideetan aztertzeke prestatu zuen txosteneko ondorioetako batzuk¹⁷, eta bestetik, Soziolinguistika Klusterraren ikerketa horretan komunikabideei buruz azaleratu ziren hainbat aipamen¹⁸.

Lehenik eta behin, adierazi nahiko nuke Kultura Saileko txostenean gazteak lehentasunezko talde gisa agertzen direla eta gazteentzako kanal eta edukiak bultzatzearen beharra azpimarratzen dela. Horrekin batera beste ezaugarri hauen beharra aipatzen da: *Interneten garrantzia, aniztasunaren beharra, elkarlana eta sareak, arintasuna*.

Esan beharrik ez dago, aztertu ditugun hedabideak bete-betean sartzen aipatutako puntu horietan. Euskararen normalizazioan funtzio estrategikoa betetzen dute ukaezina da.

a.- Interneten garrantzia: laurak daude Interneten eta beren asmoen artetan atal hau sendotzea dago.

b.- Edukietan eta jarreran aniztasuna islatzen dute, era kontzientean, gainera, denek esan baitigute hutsuneren bat betetzera etorri zirela. Batzuk euskararen berreskurapenerako agente gisa, Gaztezuloren kasua, Bagera elkartearen hausnarketa batetik sortua, edo zaletu bezala ikusitako zuloa estaltzeko, Entzun! edo Hitzen Uberan-en kasuetan bezala.

c.- Elkarlana eta Sareak: elkarreragina eta osagarritasuna maiz agertu diren kontzeptuak dira. Badakite euskarazko produkzio gehiago egoteak mesede egingo diela eta elkarren arteko sinergiak sortzea ohiko praktika da.

¹⁷ Jose Inazio Basterretxea: *Hedabideak eleaniztasunean, euskararen kasua*. HIZNET 2011. 55. orria.

¹⁸ Soziolinguistika Klusterra *“Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena”*. 51-52 orriak.

d.- Arintasuna: “*Estilo serioak eta arinak euskal hedabideen zabalkunderako konbinatu beharra azpimarratu da*”. The Balderen kasuan beharbada gehien, baina baita besteetan ere, gai arinak edo tratamendu arinak eskaintzen dira, aire freskoa sartuz euskal hedabideen ekosisteman.

e.- Ez dira produkzio masiboak, baina aurrera egiteko irakurle poltsa fidela behar dute. Paperezko formatua dutenen kasuan, harpidedunei esker sustengatzen dira proiektuok, oraintxe hain bogan dagoen eta atzoko asmakizuna dela uste dutenei *crowdfunding*-a Euskal Herrian aspaldiko kontua dela erakutsiz.

f.- Eta ez, bereziki, gazteei zuzenduak. Jende gaztea hartzaile *naturala* dela onartzen badute ere, aldizkari espezializatuen kasuan adinak baino zaletasunak agintzen du, eta gainontzekoetan edukienganako konexioa bilatzen da, eta horrek ez dauka zertan adinarekin zerikusirik izan behar.

Bestalde, irakurleengan arreta jarritz, jakin nahi genuen ea euskal gazteek kontuan hartzen al dituen produkzio hauek, ezagutzen al dituen eta nola erabiltzen dituen. Kontuan hartu behar dugu elkarrizketatu guztien ama hizkuntza euskara dela eta denek eskolako ibilbidea D ereduan egin dutela. Esan dezakeguna da orokorrean ezagutza lausoa dela. Gaztezulo kenduta, besteak gutxi aipatu dira, eta askotan publiko guztiei edo izaera orokorra duten hedabideekin batera.

a.- Erabilera maila ere, produktu *arinak* diren neurrian, horrelakoa da. Begiratu egiten dira, denbora-pasarako, entretenitzeko eta informazio zehatzen baten bila, baina ez dira irakurle fidel gisa identifikatu.

b.- Gertutasuna sentitu da. Irakurleek ondo baloratu dute gazteek gazteentzat egindako produktuak izatea (edo zaleak zaleentzat). Izan ere, “*zer informazio eman eta nola eman, baldintzatuta jasotzen da*”¹⁹ eta alde horretatik desberdintasun handiak egon dira gazteek “euretakoren” batek egindako produkzioen pertzepzioen (*Entzun!*, *The Balde*, *Gaztezulo...*) eta *gazte* ez den erakunde batetik egindakoen artean (*Gaztea* irratia, adibidez). Oso adierazgarria da Gaztezuloko elkarrizketatuak emandako adibidea ere, nahiz eta produktua oso erakargarria izan, Ikastolaren bidetik iristen bazaie ez dute modu berean onartuko, handicap hori izango du hasieratik.

c.- Euskararen aldetik ere gertutasuna eta freskotasuna sentitu dute irakurleek. Egileek, Euskal Herri osoa jomugan dutelako edo, ez dute inolaz ere euskara batua zalantzan jartzeko asmorik azaldu, baina bai estilo zurrunetatik ihes egiteko asmoa. Era berean, horren gaineko kezka badago eta esamolde berri eta adierazkorrak sortzeko zailtasunak aitortu dituzte.

¹⁹ SK Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaizten txostena

d.- Orokorrean, ondo baloratzen badituzte ere, dibertsitate gehiago eskatu dute, gai eta edukietan.

4. BIBLIOGRAFIA

Amonarriz, Kike: *Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea*. HIZNET, 2011-2012.

Argia aldizkaria. 2008ko apirilak 20. Elkarriketa Miren Azkarateri.

Basterretxea, Jose Inazio: *Hedabideak eleaniztasunean, euskararen kasua*. HIZNET, 2010-2011.

Baleike.com: Jon Sarasuak 2012/02/15ean Zumaian emandako hitzaldiaren kronika <http://baleike.com/2012/02/16/Jon-Sarasua-Gizarte-erakundeetatik-sortutako-estrategia-berriak-behar-ditu-euskarak-aurrean-ditugun-desafioei-aurre-egiteko/>

Berrio Otxoa, Kontxesi; Hernandez, Jone Miren; Martinez, Zesar: *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna aurreikusten 2001-2002*. Soziologiako euskal koadernoak, Gasteiz, 2003.

Bourdieu, Pierre. *Cuestiones de Sociología*. Istmo, Madril, 2003.

Etxegoien, Fermin. *Neurona eta Zeurona*. Pamiela, Iruña, 2004.

Feixa, Carles: *De jóvenes, bandas y tribus*. Ariel, Bartzelona, 1999.

Hernandez, Jone Miren: *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur*. Gazteak, Aisialdia eta euskara, XV. Jagon jardunaldiak hitzaldia, 2010.

<http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2011/hernandez.pdf>

Lantalan.com: *eralan topeketen kronika, Huhezi, Eskoriatza 2011-12-01 III. Parte*

<http://www.lantalan.com/lantalan/euskalgintza-adostasunen-sakontasunaz-gogoeta-egiteko-gonbita>

Sarasua, Jon: *Euskal Telebista eta euskal telebista. Euskarazko telebista esparruaz eztabaidarako gogoeta bat*. 2012.

<http://www.scribd.com/doc/99682844/TelebistaEsparruazJonSarasua>

Sorguneak ikertegia: *Kulturbizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan*, Mondragon Unibertsitatea, 2008. <http://www.mondragon.edu/eu/ekt/ikerketa/oraingo-ikerketak/Kultur-bizitzaren-azterketa.pdf>

Soziolinguistika Klusterra, Topagunea eta Urtxintxa: *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua*, 2010. <http://www.soziolinguistika.org/eu/node/4379>

Soziolinguistika Klusterra: VI. Kale neurketa 2011. Emaizen txostena. <http://www.soziolinguistika.org/node/5563>

Sustatu.com Interneteko albistegia: V. Inkesta soziolinguistikoaren emaitzak 2012/07/16 <http://sustatu.com/1342452281>

Zuzeu albistaria: elkarrizketa Gorka Bereziartuari, 2012/05/26 <http://zuzeu.com/2012/05/26/gorka-bereziartua-kontrakulturatik-emitza-hobeak-aterako-genituzke/>